



Belateko tunelak...

datorren astean idekiko omen dituzte, Nafarroako Gobernuak ez du eguna konfirmatu, eta azkeneko momenturarte ez dutela konfirmatuko iduri du. Obrak inauguratzera Espainiako erregea etorriko da, eta horrek izanen du nolabaiteko zerikusirik aferan.

4

27 Kultura: "Herriak eta Hiriak" Kultur Hilabetea

28 Kirolak: Jon Bru

Lehendakari Txapelketa irabazi du aurtien Berako txirrindulari afizionatuak

GEHIGARRIA:

Lesakako Feriak

Gaur, azaroak 20, ospatuko dira urteko azken feriak

Santa Zezilia, musikarien eguna, larunbatean

Larunbatean ospatuko dute musikari guziek Santa Zezilia Eguna. Herri herri, musika taldeek beraien emanaldiak antolatu dituzte astebururako. Hori dela eta, Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolako zuzendaria den M^a Jose Bergararengana jo dugu. Berak dioenaren arabera, «garai batean solfeoa ikastea oso



aspergarria zen, baina orain, ikasketa sistema berriarekin, instrumentu bat jotzeko ikasten da, eta beraz, atsegina da». Horregatik, neka-neka eginda musika ikasketak utziak zituen jendea berriro hasia da tresnaren bat ikasten. Berako Musika Eskolan azterketarik egiten ez badute ere, hiru hilabetetik

behin audizioak eta kontzertuak antolatzen dituzte, «ikasleen eboluzioa ikusi eta jendaurrean lasaitasuna hartzen joateko».



856 ikasle biltzen dituen afizioa

Berriki TTIPI-TTAPAN agertu gurenez (215. zenbakia), 877 ikasle ari dira musika ikasten Bera, Lesaka, Doneztebe, Elizondo eta Leizaldekoko Musika Eskoletan. Musika tresnak bakarka ikasteaz gain, taldeak ere osatzen ari dira eta edozein klaseko musika taldeetarako harrobi lana egiten dute.

«Musikara dedikatu nahi izanex gero, ikasketa arautuetan hasten ahal dira ikasleak»

3





BASERRIKO EKIPAMENDUEN III. ERAKUSKETA

70 ERAKUSKETA BAIKO GELAKO
2.000M² ESTALIAK

NON

ONGINEDA Polikirodegia - LIZARRA

ORDUTEGIA

LARUNBATA, AZAROAK 29
10,00etatik 20,00etara
IGANDEA, AZAROAK 30
10,00etatik 18,30etara

NORENTZAT

GANADUZALEAK: Behi, Ardi, Zerri, Untxe.
GAZTAGILE ARTISAUAK

ANTOLATZAILEA:



Sadareko errepeidea
El Sario - 31006 IRUÑEA
Tfnoa. 23 97 62



Nafarroako
Gobernua
Nekazaritza, Abeltzaintza
eta Elikadura Departamentua

LAGUNTZAILEA:

LIZARRAKO
Udala



AZAROAK
24 - 28

ABELKUNTZARI BURUZKO HITZALDI ZIKLOA

NON: Julián Romano Musika Kontserbatorioan
Autobus Geltokiaren etxean - LIZARRA

ARDIAK ETA HARAGI-BEHIAK

ASTELEHENA 24 / 18,30etan*

"Abeltzaintza sariaren etorkizuna Europako Batasunean" Alberto Berga Monge
(A.M.B. CONSULTANS)

ZERRIAK

ASTEARTEA 25 / 19,00etan

"Zerri sektorearen aurrakuspenak" Juan Antonio Puertas Rodríguez (Murtziako
Zerri-hazle Elkarteen Federazioa)

ESNE-BEHIAK

ASTEAZKENA 26 / 11,30etan

"Hobekuntza genetikoaren bilakaera esne-behietan: bere eragina elikaduran eta esnearen kalitatean" Rafael Alenda (ETSIA) eta Vicente Jimeno (EUITA-UPM)

ZALDIAK

ORTZEGUNA 27 / 19,00etan

"Burgete arraza: arraza estandarren aurkezpena eta garatu beharreko
helburuak" Alberto Perez de Muniaín (ITGG)

GESTIO EKONOMIKOA

ORTZIRALA 28 / 12,00etan

"Abeltzaintzaren errentagarritasuna Nafarroan: ITGGren kudeaketa
emaitzen arabera" ITGGko Kudeaketa eta Kontabilitate Taldea

* Azken orduko aldaketa

S. SEMPER Makineria

Ergoien Auzoa
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
Tel. eta Faxa: (943) 49 06 19

BLIZZARD Seriea
3 modelo
65, 89 eta 95 CV



Landini
Azkenean!

GLOBUS Seriea
70 CV, kabina edo
kabinarik gabe



4040 SYNCHRO
Traktorea



DATUAK.....

❖ M^a Jose Bergara sortzez irundarra da eta martxotik honat Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolan zuzendari lana betetzen du.

❖ Hiru urtez Irungo Kontserbatorioan aritu ondotik, piano irakasle bezala ailegatu zen Berarat, orain bi urte. Bere ustez, pianoa instrumentorik konpletoena da. «Edozein tresna jotzeko erreferentzia pianoa da».

❖ Txikitatik musika ikasi badu ere, Magisteritza egin ondotik ekin zion berriro pianoari. Ricardo Requejo irundarrarekin, Bilbon, Suitzako Lausanne hirian eta Cristina Navajasekin ikasi du, bertzeak bertze.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

👉 M^a Jose BERGARA Berako Musika Eskolako zuzendaria

“Aspergarria zelako solfeoa utzi zuen jendea itzultzen ari da orain”

MUSIKA IKASKETAK AUNITZ ALDATU DIRA AZKEN URTEOTAN, EZ DA?

Bai, orain, hezkuntza erreformarekin, instrumentuak jotzen ikastea *hobby* bezala hartzen ahal da, ez duzu nahitaez horretara dedikatu behar, lehen bezala. Solfeoa, beti instrumenturen bat jotzeko ikasten da, ez da lehen bezain aspergarria. Nere ustez orain klaseak atseginagoak dira eta solfeoa utzia zuen jendea, baita helduak ere, berriro instrumentuak ikastera itzuli dira.

ZEIN IKASKETA EGINDAITEZKE ISIDORO FAGOAGA MUSIKA ESKOLAN?

Bederatzi musika tresna ikas daitezke: akordeoia, txistua, gitarra klasikoa eta elektrikoa, perkusioa, pianoa, teklatuak, trabes-kako txirula, klarineta, txistua eta saxofoia.

ETA AZTERKETARIK EZ DA EGITEN?

Ikasketak ez arautuak egiten dituztenak ez dute azterketarik, baina frogatzen dute: hiru hilabetezko audizioa egiten dute hemen eta, bertetik, Kultur Etxean kontzertua eskaintzen dute. Gero, gustora daudenak eta musikara dedikatu nahi izanez gero, ikasketa arautuetan



«Berako bestetan, eskolako talde batekin berbena egin, zergatik ez?».

sartzen ahal dira, kontserbatorioetan, eta hor bai badira examinak.

BERAKO KASUAN, HERRIKO HAINBAT MUSIKARI IKUSTEN DIRA TALDE FAMATUETAN JOTZEN. HARROBI LANA ERE EGITEN DUZUE?

Hemen, aipatutako instrumentuak bakarka lantzeaz gain, taldeak ditugu: akordeoi taldea, musika banda, txistula-

ri banda, aurtan antolatutako perkusio banda, pop-rock tailerra... nere asmoa horrekin segitzea da eta akaso, Berako bestetan, herriko talde batekin berbena egin, zergatik ez?

SANTA ZEZILIA, MUSIKARIEN EGUNA OSPATUKO DA ASTEBURU HONETAN. EKITALDI BEREZIRIK ANTOLATU DUZUE?

Ortziralean, arratsaldeko 6etan, akordeoi taldeak kontzertua eskainiko du Musika Eskolan. Abenduan burutuko den Arrasateko lehia-

ketara prestatzeko baliagarria izanen zaie, eiaz lortutako sari garrantzitsua berriz eskuratzeko.

ZENBATEKO AURREKONTUA DUZUE?

23 milioiokoa, horretatik 13 milioi Herriko Etxeak jartzen ditu eta gainerakoa, ikasleen kuoten bidez eta Nafarroako Gobernuak ematen duen dirulaguntzarekin –gutxi, bi milioi baino gehixiago–. 173 ikasle eta 9 irakasle tituludunak ditugu, oposizio bidez beraien lanpostua lortu dutenak.

► “Musika tresna guziak oso politak dira, baina pianoa erregea da. Zuzendari eta musikari guziak ikasi beharra dute, nahitaez.”

TESTUA: ASIER GOGORZA
ARGAZKIAK: JOXEMANUEL IRIGOIEN

BELATEKO TUNELAK

Lau urte luzez obretan ari ondoren, egun batetik bertara idekiko omen dituzte bi tunelak, eta honenbertzez Belateko proiektu erraldoia errealitate bihurtua ikusiko dugu azkenik.

Ekipamendua kontutan hartu gabe, 4.000 milioi inguru erabili ditu Nafarroako Gobernuak Almandoz eta Belateko tunelak egiten, aurrikusitakoa baino %30 gehiago. Osotara, Arraizko bentak eta Zozaialde arteko 17,5 Kmko tartea moldatzea 10.000 milioi pta (400 milioi libera) gosta da.

Kasik segurua da Belateko tunelak datorren astean idekiko dituztela, nahiz eta Nafarroako Gobernuak agintariak egun zehatza zein izanen den ez duten publiko egin nahi.

Datorren astean irekiko dituzte


Halere, Espainiako erregea obra inauguratzera etortzeak badu 'sekretismo' honekin zerikusirik.

Aurrikusi zena baino urte terdi gehiago luzatu diren obra hauei esker, dexte hobetuko da Iruña eta gure eskualdearen arteko komunikazioa, nahiz eta oraindik ere hemengo errepide gehienek egoera penagarrian segitzen duten.

Gainera, pentsatzekoa da tunelak idekitzen dituztenean trafikoko gehiago izanen dela Iruña eta Irun arteko bidean, Leizarango au-

tobiatik joaten ziren auto eta kamioi aunitz hemendik pasako baita, eta gaur egun motela den trafikoa are astunagoa bihurtuko dela.

Bera-Behobia bidezatia, errate batera, ia 7.000 ibilgailuk egiten dute egunean, hoieta-ko %20a inguru kamioiak, eta errepidea moldatzeko asmoa



badu ere, oraindik ez du proiektu finkorik Nafarroako Gobernuak. Hori dela eta beren kezka agertu dute hainbatetan eskualdeko alkateek.

Tunelak

Azken xehetasunen aldetik, argitze eta segurtasun sistema aintzindariak erabili dituzte tunelak hornitzeko, baina halere zenbait beltzune ageri da hoin inguruan. Hala nola, lurrazpitik doaien 4 kilometro baino gehiagoko ibilbidean karril bakarra izatea norabide bakoitzean, eta kamioiak ezin aitzindu izanen direla erran nahi du horrek.

Frantzia-Iruñea Pirinioetatik

Pirinioak zeharkatuz Iruñea eta Baiona lotuko dituen autopistaz solasten hasiak dira, bertzelde, bai Nafarroa eta bai Akitaniako agintariak, eta Nafarroako Gobernuak iturri ofizialetatik adierazi digutenez, «agintari frantzesek interes haundia agertu dute proiektu honetan, eta gu bitartean proiektu hori lantzen ari gara».. ■

BRONTZEZKO ZALDIAK


Leizorango autotobiatik pasatzen garenean errepide bazterrean ageri den ahuntz talde hori aski ez eta animalia itxura hartu duten eskultura gehiago ikusiko ditugu

Belateko tunelak zeharkatzen ditugun aldiro. Oraingo honetan tamaina errealeko zaldi bat, bi behor eta pottoka bat kokatu dituzte Almandoz eta Belateko tunelen artean, paisaia edertzeko asmoz.

Santanderko Ramón Ruiz Lloreda mediku eta artistak eginak dira lau eskulturak, eta harek erran duenez Espainiako Elenainfantaren zaldietako batean aurkitu omen zuen beharrezko inspirazioa.

Zernahi gisaz brontzezko zaldi hauek 13 milioi pezeta gosta zaizkio Nafarroako Gobernuari, eta konparazioak egitea gusto txarrekoa bada ere, ezin isildu, agintariak gisa horretako eskuzabaltasuna ez baitute agertzen behar goriagoa dagoen bertze zenbait arloetan.

Argazkia tunelak idekitzeko 10 egun faltan aterria da eta hor ageri denez errepideko marrak margotu gabe zeuden oraindik.



BI TUNELEN EKIPAMENDUA

▼ Ia mila milioi-ko aurrekontuarekin, tunelak segurtasun sistema aintzindarienekin hornitu dituzte; suteak detektatu eta itzaltzeko puntako

teknologia, errepidearen egoeraz informazio zehatza ematen duten panelak... eta guztia estazio zentraletik koordinatuko da informatikoki.



AIREZTAPENA

- 1,4 m. diametroko 46 haizegailu.
- Haizearen norabide eta kutsadura gra sentsoreak.



TRAFIKOA

- Abiadura baimendua: 80 km/orduko.
- 14 panel informatibo.
- 46 sentsore trafiko intentsidadea neurtzeko.



ARGIA ETA ENERGIA

- 1.400 proiektore.
- 400 fluoreszente gidatuak.
- 5 zentru transformadore.



SUTEAK

- Kable fibrolaserdun detekzio sistema.
- Itzaltze sistema, 59 ur eta apar hartunerekin.



LARRIALDIAK

- Megafonia: 3 bozgorailuko 14 linea.
- Laguntza postak: 22 Almandozen eta 36 Belaten, 150 m.ka.



EGURALDIA

- Klima-egoeraren 4 kontrol estazio.
- Horma edo lainoa dagoen informatzen duten panelak.



KAMERAK

- Tebista zirkuitu itxia.
- Berez orientatzen diren 33 kamera (23 Belaten eta 10 Almandozen).



IRRATIA

- FMko 3 emisore dituko dira eta AMko 2.
- Interferentziarik gabeko telefonia mobila.
- SOS Nafarroa linea.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi@encomix.es

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
mele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Asier Gogorza, Joxe-
manuel Irigoien. **Administrazioa:**
Amaia Goia. **Erredakzio taldea:**
Pello Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban
Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-
dorena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
beste, Pablo Mendiburu, Joseba
Igarabide, Alizia Olaizola, Mar-
gari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
xel Gerendiain, Jacqueline, Eli-
xabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
kar Txoperena, Pello Apezetxea,
Aitor Arozena, Kristina Boan.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
rroa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
vier Etxeberria...

Inprimategia: Graficas Ona.
ttipi-ttapa ez du bere gain har-
tzen derrigorrez, aldizkarian adie-
razitako erranen eta eritzien eran-
tzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Be-
ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta
Sarako udalak, Bortzirietako Eus-
kara Mankomunitatea, Malerre-
kako Zerbitzu Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
tea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Belateko tunelak azaroaren hondarrean idekiko dituzte

**Karretera kenduta hagitz
leku lasai eta polita
geldituko da hau**



Karlos GOIKOETXEA
San Blas bentakoa

Errepide berria idekitzean gure ostatuaren gainean geldituko da, 800 metroan, baina komu-
nikatuta segituko du halere. Tra-
fiko astuna ezingo da igo, baina
autoak eta bai, eta etorri nahi
duenak bi tunelen artean bide
bat izanen du honaraino.
Guk karretera berriak egiten di-
gun kaltea beste modu batean
begiratzen dugu. Hau ez da ru-
tako ostatu bat geldituko, orain
bezala, baina karretera kenduta
hagitz leku lasaia eta polita gel-
dituko da, eguna lasai pasatze-
ko primerakoa. Orduan guk
ikusmira berriak ditugu, hau hos-
tala bihurtuko da eta bide zahar-
ra zardinak erretzeko aprobetxa-
tuko dut, adibidez.
Kamioiari oso ongi etorriko
zaie obra hau, zeren orain ez du-
te portua jeitsi beharko, eta ne-
gu gogorra denean errexago izan-
en dute hortik joateko hemen
goitik baino.
Hala ere batzuk erran didate be-
re alde txarra ere baduela, ezin-
go dutelako afaldu eta dutatze-
ra gelditu, tunelak Iruñeraino jo-
atera bultzatzen baititu, hau da,
luzeago segitzea. Horregatik bat-
zuk bide zaharretik etorriko di-
ra noiz edo noiz.

**Orain arazoa Endarlatsako
tramoetan etorriko duk,
trafikoa asko haziko baituk**



Patxi OLAIZOLA
Goizuetako kamioilaria

Guretzat behintzat lasaitasun ederra izanen duk, eta gehiago orain ne-
gu aldera ibiltzeko, elurra eta izotzarekin... nik neronek ez,
baino ezagun askok egin ditiz-
tek "eskapadak" Belaten.
Hor goitik beheiti portu luzea duk, kurba asko ditik eta ka-
mioiaren frenoak segituan be-
rotzen dituk karga pixkobatera-
man ezker. Orain bajada hori
dena kentzekin diferentzi ede-
rra somatuko duk. Almandozko
puska horretan bajada izanen
duk oraindik ere, baino horrai-
no frexko nola ailetuko den ka-
mioiak ez dik batere problemik
izanen.
Beste aldetik, nik uste, erre-
pide berria idekitzekin orain bai-
no kamioi gehiago ibiliko da Be-
latetik, Irurtzun-Andoain auto-
bia bera txarra baituk, harek ere
kristoren bajadak ditik eta luzea
baituk. Horregatik gero ere jen-
deak Belatetik tiratuko dik.
Neretzako arazoa Endarlatsako
tramo horietan etorriko duk
orain, trafikoa asko haundituko
baituk, kamioien trafikoa batez
ere. Gainera hor karretera txarra
duk, estua, eta kamioi asko ibi-
lita tapoia egingen da.

**Bazen tenorea Iruñeako
zentralizazioaz gain,
herri tikiakin oroitzeko**



Amaia ELOSEGI
Institutuko irakaslea

Bazen tenorea Iru-
ñeako zentraliza-
zioaz gain, herri
tikiakin oroituta
bizitasuna suspertzeko bideak
jartzen hasteko. Belateko tunela
horretarako bide izanen dela-
koan nago. Halere, printzipioz,
Belateko tunela bezalako obra
erraldoien aurka nago: batetik,
dagoeneko arras hondatua du-
gun ingurugiroarekiko sekula-
ko erasoak direlako; bertetik, iri-
tzi publikoari, egin behar den
obrari buruzko iritzirik eskatzen
ez zaiolako; eta hirugarrenez, eta
hondarrekoari loturik, guztiok
ordaindu beharreko obrak in-
posatzen dizkigutelako.
Tunela eginga delarik, ez du gi-
belera joaterik, baina, zer gerta-
tuko da, soilik bi karril dituen
tunelean, aitzinean kamioi bat
egokitzen zaizunean? Ez ote da
nahiko penagarri ia XXI. men-
dean, honelako obra erraldoia
egin eta soilik bi karril izatea?
Dena den, ez naiz inor obra be-
raren egiteaz kezatzeko, ni neu,
egunero, hara eta hona joateko,
kupidagabe kotxea ibiltzen duen
horietakoa bainaiz; eta zenbat
eta kotxe gehiago, orduan eta
errepide berri eta hobe gehiago
behar.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328-133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

IRAKURLEAK MINTZO

Telefónica

TTIPI-TTAPA gutun batira kurri dut Telefónica ren erantzungailua euskaraz paratzea posible ez dela salatuz. Gezurra dirudien arren, Nafarroan, euskara ez da "hizkuntz autonomiko" gisa kontsideratua. Baina, edozein kasuan, eskaera 004 telefonoan egiten baldin bada, paratzen dute martxan zerbitzu hau. Adibidez, nere etxeko erantzungailua, Etxalarren, euskaraz dut paratua. Edozein kasuan ez zen gaizki izanen gero eta jende gehiagok eskari hau egitea, ea ulertzen duten "ez dakit non" hemengo herritarrek euskaldunak garela nahiz eta "Pais Vasco"koak ez izan.

MANUEL LEZA

**Belgikatik**

lepa lagunak!

Hementxe gaude bi euskaldun etxetik urrun, baina gure herria ahaztu gabe. Badaramagu hemen hilabete t'ardi eta esan dezakegu arras ongi moldatu garela bizimodu honetara. Euskaldun asko dago hemendik, baina oraindik ez dugu topatu euskararik ez egoitzarik. Baita honelakoak errezago Bruselan harpatzea. Nire ikaskideak Nerea du izena eta Hondarribikoa da, ni ordea Rakel naiz Elbetekoa. Zihur aski eguberrietan han izanen gara, hala ere itzuli beharko dugu ikasketak bukatzeko. Interneten bidez TTIPI-TTAPA irakurtzeko aukera daukagu, eta egia esan eskertzeko da benetan, honek herri mina "guttitzen" duelako. Besterik gabe musu haundi bat herrialde hotz honetatik.

NEREA RODRIGUEZ
RAKEL GOÑI

**Alemaniatik**

Kaixo, zuen horrialdeak irakurtzea asko gustatuko litzaidake, baina euskaraz ez dakit.

Euskaldunen hizkuntza, historia eta kultura oso interesatua nago eta interneten bidez informazioa bilatzen ari naiz, hori da nere gutun elektronikoaren arrazoia. Alemandarra nauzue, kolonbiar batekin ezkondua. Nere emaztearen abizena Saldarriaga da. Genealogian oso interesatua nago (gure familiako 13 belaunaldiren datu zehatzak ditugu, 1580. urtetik). Pixkanaka-pixkanaka nere emaztearen abizenari buruzko informazioa bilatzen ari gara. Nere aitagarrearen liburu kolonbiar bat dauka, "Genealogios de Antioquia y Caldas", Gabriel Arango Mejia. Liburua Kolonbiako erdiko bi departamentuetako familietaz ari da, euskaldun askok emigratu zuten lekuaz, hoiaren artean Francisco Saldarriaga sargentua, "Nafarroan dagoen Baztango Berrueta Bailarako Elizondoko" sortua. Bera 1704ko urriaren 27an hil zen Medellinen, Antioquia. Liburuan bere oinordekoen zerrenda ageri da. Zoritxarrez nere aitagarrearen bere arbasoen informazio asko falta du bere aitaiziaz geroztik. Liburu horretako genealogia eta bere familiaren artean joan den mendeko belaunaldi bakarra falta zaio. Elizondoko Francisco Saldarriaga zela koaren familiak interes handia daukagu eta baita Etxalarren honi buruz gehiago dakiten euskaldunak egotea. Mila esker zuen arretagatik.

JURGEN FRITSCHÉ
BRUNNENSTRASSE 5,
D-63179 OBERNSHAUSEN,
ALEMANIA
(IB.FRITSCHÉ@T-ONLINE.DE)

**Hire ezinegona antolatu:**

Gaur egun gazteok ditugun arazoak zenbaezinak dira. Zenbaezinak era berean, arazo hauek konpontzeko jarri den dizkiguten trabak. Izan ere, arazo hauek, sistema bideragarritasunaren ordaina dira; ordaina ez ezik, ardatz eta oinarri ere.

Silogismo xume horretatik abiatuta, egokia da pentsatzea sistemak gure arazo konpontzeko ukatuko digula. Irtenbideak ez du partziala izan behar, egoeraren araberrako moldaketa, orain arte bezala. Haatik, konponbideak, irtenbideak integratu eta erabatekoa izan behar du, arazoak jatorritik erasotzen duena. Hori ordea ezinezkoa da, sistema osoa zailtasun jarriaren eskatzen baitu.

Aitzinekoa premisatzat hartuta, gure alternatibak sistematik at kokatu beharko ditugu. Hausnarketa honek ordea, praktikan berehalako ondorio bat dakar, gaur egun egitura burokratizatu, elitista eta menpekotasunezko harremanetan oinarritutako gizarte hasmentatik ukatzea. Halaber, guztion parte hartzea ahalbideratuko duten mekanismoak erdietsi beharko ditugu; hala nola, erakunde ofizialek at gure proiektuak gauzatzeko ahalmena.

Ondorio hauek aldarrikatzen ditugularik, traba nagusia begibistakoa da, masen uniformazioa. Subjetibitatea nagusi den gizarte honetan, baikoitzak bere lekua eta egin beharra dauka eta batzuek gezurra zabaltzea den bezala, gurea egia, kontrainformazioa da.

Ez dakigu non gauden ezta nora goazen ere. Aparatu burokratikoak informazio guztia mamusare beltz batean izkutatzen dio herriari, edozein herritar ekimen ekidin eta irensteko ahalmena duen heinean. Egoera honetara iritsirik, beharrezkoa da begiak irekitzea eta kontzientzia hartzea. Arazo globalen

aitzinean, antolaketa balizko jarrera da, egoerari aitzin egiteko. Horretarako arazo global hauen azterketan lagunduko diguten iturriak garatu behar ditugu, arazoak sorburura, jatorrira iritsi. Eginahal honetan kokatzen dugu urria eta azaroan zehar (Hire ezinegona antolatu) hedatuko den kanpaina, non, solasaldi, bideo emanaldi eta kontzertuen bitartez, gogoetarako gaiak, informazioa eskeinitzeko den, norberak ikasi eta ondorioak ateratzen.

Beraz badakik/n, zabor kontratu baten truke lau sos irabazten, soldaduskara hala beharrez, langabezia, etxebizitza gabezia, kontrol soziala, manipulazioa, errepresioa... oraindik zainetan odolik baduk/n, badike irakiteko tenorea... Hire ezinegona antolatu!

BAZTANGO GAZTE ASANBLADA

**Eskerrak emanaz:**

Hamaikagarren aldia aurrean jarraian dugu ospatu eguraldi ta giro ederra biak ditugu topatu Lurraren Eguna gure artean gogoz zaigu barneratu gure ohiturak sustatu barazki-lurrak maitatu ta artisauak bultzatu hori lortzea berez ez denez hain errega suertatu hau posible egin duten horiek nahi ditugu gogoratu.

Goizetik ziren artisau denak etorri lekuan bila baserriarrek ekarri zuten barazki ta onddo pila sagardo eta gaztak ere bai ta giro oneko koadrila zenbaitzuren lan ixila goxua bezain umila a ze koktel borobila guzti horrekin azpilan hori goratu nahirik nabila eskerrik asko ta hurrengo urtea hobeia izan dedila.

GURE TXOKOA ELKARTEA

**OHARRA:**

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez dituzten iritzirik.



Diario de Noticias 97-XI-14

«Hezkuntza Kontseilaritzaren aurrean gaude berriro, ikastolan DBHren legezatzzea eskatzeko, 1994an aurkeztu genuen proposamena oraindik ez baitute onartu».

Joxean OIZ
Labiaga Ikastolako Zuzendaria
Diario de Noticias 97-XI-14

«Jon Mirandek nazia zela aldarrikatu zuen alemanek gerra galdu eta berehala, eta Ku Kux Klaneko kide zela ere esan zuen. Baina hori probokazio soilak zen, ez baita posible 44 urteko frantziar bat KKKeko kide izatea. Baina zertarako balio du nazi konfeso batek? Gai nontzeko guztiek bere bertuteak azalarazteko, eta hori zen niri ustez Miranderen helburua».

Eduardo GIL BERA
Narbarteko idazlea
Egunkaria 97-XI-14

◆ Lehengo feriak edo oraingoak?

◆ Lehengoak hobeak, azindari hobekiago begiratzen zioten.

◆ Behiak eramanen dituzu aurten?

◆ Badut pentsamendua. Bertzenaz, esnedun behiak gutti izaten dira.

◆ Zenbat urtez sariak irabazten?

◆ Suitzekin 30 urte igual bai. Azken lau urtetan 69.000 duro irabaziak ditut.

◆ Baserrian hazteko, behia, zerria edo ardia?

◆ Ardia ez dut ikusi nahi ere. Zerriak diru gehiago uzten du, arrisku guttiagorekin. Behia ere maite dut.

◆ Eta platerean, behikia, zerrikia edo ardikia?

◆ Hor denetikan, gazteei aurre egingen diet nik.

◆ Behiak jeizteko, eskuz edo makinaz?

◆ Makinaz eta azken hondarrak eskuz. Horrela eskatzen dute eta zazpi behi, eskuz jeztea nekagarria da.

◆ Bertsoak aditzen dituzu plazan? Eta telebistan?

◆ Bai, hori ez dut galduko.

◆ Aurten nork irabaziko du txapelketa nagusia?

◆ Hor denak onak dira, baina Lizaso eta Egaña fuerte ikusten ditut.

◆ Historian izan den bertsolaririk onena?

◆ Lasarte eta Uztapide ikaragarriak ziren. Eskola ttikia, baina bertso ona.

◆ Egaña-Lasarte desafioa nork irabaziko luke?

◆ Kanpeonatoan gazteek, gaiak eta aunitz baitira eta ikasia izan behar zara. Baina mahaiaren inguruan, Lasarte oraindik ederki ibiliko zen horiekin.

◆ Udazkenean usotara edo onddotara?

◆ Batere ez. Ez dut goitira begiratzen eta beheitira, bakarrik ezkurak ote diren, zerriak bazkatzeko.



Luis OLAETXEA
Nekazaria eta bertsolaria.
LESAKA

ttipi-ttapa
Inprenta lanak
egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egingen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listol! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188


ttipi-ttapa



631188

Zure
publizitaterik
onena

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27



**Ostargi
Optika**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

PIKABEA

Molinero drogerian
galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA



Zer eskainiko dizu

Gida honek?

DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA hone-tan aurkituko dituzu inguruotako profesional, ko-mertzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informa-zio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

Gida 98

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harre-manetan AZAROAREN 24a baino lehen eta milaka pertsonak irakurriko dute zure mezua.

ttipi-ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

Hegoaldetik deitzeko 948-


Iparraldetik deitzeko 19-34-48-**631188**

MAVERICK

4x4

Indartsua, behar duzuenean





ZALAIN MOTOR
 ☎ 948.631157 • 903.778023
 Ubeldaldea - BERA

TELLETXEA TAILERRAK
 ☎ 948.450667
 Leitzako bidea - DONEZTEBE

Eskualdeko 292 ikaslek parte hartuko dute Iraupen Ski Kanpainan

Datorren urteko urtarriletik apirilera gauzatuko da XIV. edizio hau

TTIPI-TTAPA

Datorren urteko urtarriletik apirila bitarte, eskualdeko hamar ikas-tetxetako 292 ikaslek Iraupen Ski Eskola Kanpainaren hamalau-garren edizioan parte hartuko dute. Kanpaina hau Lehen Hezkuntzako 6. maila eta DBHko Lehen eta Bigarren mailan ikasten ari direnei zuzendua dago eta Isaba eta Otsagiko Herriko Etxeek antolatzen dute, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren laguntzaz.

Parte hartzaile bakoitzak, asteko 23.600 ordaindu beharko ditu, 15.600 berak paratuak—Herriko Etxeek ere lagundu ohi dute—eta gainerako 8.000 pezetak Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu. Prezio honetan, ostatua eta mantenua, pistetarako garraioa, klaseak eta skia egiteko ekipoa-
ren alokairua sartzen da. Aste Zuri bakoitzak bortz egun iraunen du, igande gauean hasi eta ortziralek arratsalde arte. Goizean eskiekin go-



Ikastetxea	Ikasleak	Non
Baztan Ikastola	20	Isaba
Arantzako Eskola	16	Isaba
Elizondoko S.Fco.Javier	9	Isaba
Berako Jesusen Bihotza	14	Otsagi
Doneztebeko San Miguel	29	Otsagi
BHI Doneztebe	60	Isaba
Lekaroz Institutua	46	Isaba
Goizuetako Eskola	19	Isaba
Berako Labiaga Ikastola	42	Isaba
Lesakako Irain Eskola	17	Isaba



xatu ondotik, arratsaldean ekitaldi osagarriak izanen dituzte, hara no-la zinea, herri kirolak eta kultur bisitaldiak Erronkariko Julian

Gaiarre museora eta Otsagi eta Erronkariko Naturaren Interpretazio Zentruetara.

1985. urtean lehen kanpaina egin zenetik,

Nafarroako 47.000 ikasle baino gehiagok parte hartu dute kanpaina hauetan. Aurten 5.000 ikasle izanen dira Erronkari aldean.

Minbiziarekin harremana izan dutenak biltzen dira Lagunak elkarteak

Bortzirietan, minbizia edo kanzer gaitasuna duten edota izan duten eta hauen senitartekoak—baita arazoarekin sentsibilitea duen edonor—biltzen ditu Lagunak elkarteak. Elkartea sortu berria da eta, momentu honetan, legez-tatzeko prozesuan dago.

Hilabetearen behin biltzen dira Lesakako Osasun Zentruko liburutegian, hirugarren asteko ortziralean, arratseko 7etatik aitzinera. Oraingoan, hamar lagun inguru biltzen badira ere, egocera honetan dagoen jendea animatu nahi dute, bileretara joan dadin. Izan ere, norberaren kezka eta arazo berdinak dituen bertze jendearekin solas-
tea eta egotea, elkar laguntzeko modu ego-
kia dela uste dute Lagunak elkarteak biltzen diren guziek. Hilabete honetako zi-
ta, beraz, ortzirale honetan, azaroaren 2lean izanen da.

LARUN

Hortz klinika

Guy RANDE Doktorea
Hortz zirugian Doktorea

Ordutegia:

Astelehen, ortzegun eta larunbatetan,
arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara.

San Esteban 37, beheka • 631057 • BERA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA

arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • 637503 • LESAKA

Dia % Autozerbitzua deskontua

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6
63 14 03 • BERA

Udalak baldintzapeko askatasuna eskatu du Joxelu Etxeberriarentzako

Kondenaren 3/4ak beteak dituen kanpoan egon beharko luke

ASIER GOGORZA

Berako Senideak Elkartek, azaroaren 6ko udalbatzarrean aurkeztutako mozio baten bidez, Joxelu Etxeberria herriko presoaren egoera zehatza zein den jakinarazi zuen, eta Espainiako Kode Penalaren 90. artikulua agintzen duena bete dadin gestioak egitea eskatu zion Udalari, hau da, zigorraren 3/4ak beteak dituzten presoek baldintzapeko askatasuna dagokiela dioen legea.

Bertzetik, azken aldian Joxeluk espetxetik kanpo lan egiten duela dioten zurrumurruak gertatu egin zituzten mozio berean.

Joxeluk 7 urte eman ditu Espainiako hainbat kartzelatan, eta bete beharreko 14 urteen 3/4ak beteak ditu dagoeneko, burutu dituen ikasketek eta bere portaerak hasierako kondena 1.000 egun baino gehiagotan murriztu diolako. Gaur egun Monterroxoko (Galizia) presondegian segitzen du.

Udalak aho batez onartu zuen Senideak mozioa, eta bere gain hartu zuen Espainiako Espetxe Zuzendaritzari eskari hau igortzea, eta baita ondoko autoritate diferente hauei ere:



Osasun Zentroaren haunditze obrak maiatzerako akautuko dituzte

"Osasun Zentrua haunditu eta berrizteko obra" izeneko proiektua berriki onartua izan denez, obren adjudikazio lehiaketa ere martxan paratu du Udalak, eta oraindik obraren egilea nor izanen den jakiterik ez dugun arren, badakigu maiatza alderako Osasun Zentro berritua izanen dugula herrian, plazoez hala agintzen dute-eta.

Alkateak adierazi digunez 32 milioiko aurrekontua du obra honek, eta oraingo teitlatua eta lau paretak probextuko dira. Proiektuan agertzen denaren arabera oraingo egoitza ezkeraldera zabalduko da, eta garai batean zahar-etxea izan zena baina termiten erruz gaur egun hutsik eta desegina dagoen etxe horren beheko planta guzira hartuko du.

Herriaren Defendatzailerak, Nafarroako Parlamentuko Giza-Eskubide Batzordea, Monterroxoko Espetxeko Zuzendaritza eta Presondegiatzako Epaileari.

Udala guzti horien erantzunaren esperoan dagoela adierazi digu Manuel Iriarte alkateak, «normalean erantzuna berehala ematen baitute».

Santa Zetiliako ospakizunak asteburu honetan

Urtero egun hori ospatzeko ekitaldi desberdinak antolatu ohi dira herrian, eta aurten larunbatarekin (azaroak 22) subertu da.

Iaz jotzeko aukerarik izan ez zuten akordeoilariek emanaldia eginen dute bihar Musika eskolan, Lurdes

Izaren zuzendaritzapean. Arratsaldeko 6etan hasiko da saioa, eta 12 pieza joko dituzte.

Bertzetik, igandean bazkari batekin ospatuko dute musikariaren eguna, eta aitzinetik korala ostatzuz-ostatu ibiliko da kantuan. Trikitixa eta txistulariek ere beren doinuak zabalduko dituzte herrian barrena.

flash

❖ **"Semealabak...**
gauetz ateratzen hasten direnean, zer?" galderari erantzuna bilatu asmoz hitzaldia emanen du Josune Mayor soziologoa eta Urtxintxa Hezitzaile Eskolako koordinatzaileak. Gaiarekin kezkatuta dauden gurasoek azaroaren 28an izanen dute zita, arratsaldeko 7etan Iamotenean. Antolatzaile: Kaxerna Aisi-aldi Taldea.

❖ **Gabonetako...**
II. Futbito Koparako izen-emate epea idetki dute dagoeneko eta aldiro bezala polikiroldegirat agertu edo telefonoz deitu beharko da apuntzeko (630215). Gehieenez ere 8-10 jokalariko 12 ekipo onartuko dituzte, eta neska eta mutilen kategoriak izanen dira.

❖ **Protesta**
Labiaga ikastolako DBHko ikasleek Iruñeko Hezkuntza Departamenduko egoitzaren aitzinean jaso zuten klasea azaroaren 13an, Nafarroako Gobernuak DBHko lerroa legezatzatzen ez duela salatuz. Joxan Oiz, ikastolako zuzendaria «nardatuta» daudela adierazi zuen eta ikastetxeak legezko baldintza guztiak bete arren, baimen hori ez omen diote ematen.

LABEZAR
© 631076 • BERA

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

LOZOTEGI-JAIONE
Altzate, 19 • 630786 • BERA

BOTXO ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

Euskara Batzordeak antolatutako tailerretan dabilta neska-mutikoak

Datozen larunbatetan musika eta txotxongiloak izanen dituzte

AITOR AROZENA

Herriko Euskara Batzordeak antolatutako Udazkeneko Kultur Ekitaldien barnean, haurrendako hainbat tailer burutzen ari dira larunbatero. Azaroaren 8an, hankapalo eskola izan zuten Auskalo taldearen eskutik eta azaroaren 15ean, erreziklaia-ri buruzko tailerra Artelatz taldearekin. Larunbat honetan, azaroak 22, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera musika tailerra izanen dute Irain eskolan, Patxi Hernandorekin. Azaroaren 29an, azkenik, Tantarumairu ikastolan txotxongilo tailerra izanen da, Edurne Etxeberriarekin.

Xalto Sariaren kanporaketa azaroaren 29an

25 urtez beheitiko bertsolari nafarrei zuzendutako Xalto Sariaren kanporaketa bat azaroaren 29an, larunbata, gaueko 9etan burutuko da Arrano elkartearen afari baten inguruan. Biharamonean Iruñean izanen da bertze kanporaketa eta finala abenduaren 5ean Goizuetan. Hogeitaz bertsolarik parte hartuko dute eta horietatik aunitz lesakarrak: Estitxu Fernan-



Bortzirietako Feriak

Erdialdeko gehigarrian programaren xehetasunak baldin badituzue ere, ezin aipatu gabe utzi feriak ortzegun honetan, azaroak 20, ospatuko direla. Egun berezia denontzat eta jubilatuek, gainera, beraien egoitzan afaria egiteko probetxuko dute.

dez, Iñigo Olaetxea, Alaitz Rekondo, Xabier Terreros, Ekhine Etxepetelu, Erika Lagoma eta Imanol Lopez.

Alkaiagako industrialderako sarbidea

Zalain auzotik Alkaiagako industrialderako sarbide berria 46.640.771 pezetaren truke (BEZ barne) egingen du Construnavar, S.L. enpresak, Nafarroako Gobernuako Industria kontseilariak Foru Agindu baten bidez jakinarazi duenez. Lanak enkantearen bidez eman

zaizkio enpresa honi. Obren zuzendaritza eta asistentzia tekniko lana Santiago Sainz de los Terrerosek egingen du, 3.370.944 pezetatan.

Lesaka-Igantzi errepeidea

Lesaka-Igantzi errepeidearen moldaketa lanak Irungo ORSA, S.L. enpresak egingen ditu, 20.283.165 pezetatan. Bortz eskaintza aurkeztu ziren eta irundarrak merkeena ez bazen ere, prezio horretan txostenean ageri ez ziren zenbait lan osagarri egingen dituzte, berari

ematea erabaki zuen udalak.

Herri lurri buruzko ikerketa lana...

egitea erabaki du udalak, ondasun komunaren transakzio komenoak idatzi baino lehen. Horretarako, herriko udal artxiboan nahiz Iruñean dagoen dokumentazio historikoa begiratu da.

Zinegotzi berria

Santiago Larralde Almandoz izanen da PNVko zinegotzi berria, Justo Agirretxeren dimisioaren ondotik.

flash

Gimnasia ikastaroa

Astelehenetan eta ortzegunetan, arratsaldeko 7,15etatik 8,15etara burutzen dira klaseak Irain eskolako gimnasioan. Oraindik izena eman daiteke Antxordoki pelukerian.

Beti Gazteko

sokatira taldea Nafarroako azpitxapel-dun suertatu da 680 kilotan. Aitzineko alean, kirol orrialdeko elkartearen fitxan hainbat txapel eta sari -baita mundu mailan ere- esku-ratuak dituen herri kirol saila ahan-tzi genuen. Barkamenak.

Futbol partidu berezia

jokatu zen joan den asteazkenean Mastegi futbol zelaian. Alde batetik, Euskadiko emakumezkoen selekzio absolutoa eta bertetik, Beti Gazteko kadete mailako mutilak. Azken emaitza 1-1.

Kinto afaria

1955, 56 eta 57 urteetan jaiotakoek beraien kinto afaria ospatuko dute larunbat honetan zortzi, azaroaren 29an, arratsa-jatetxean. Txartelak salgai daude Koskila eta Etxeberria ostuetan, 4.000 pezetan eta azaroaren 23a baino lehen hartu behar dira.

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa • 63 78 26
LESKA

INAXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
627573 • LESKA

ANA janaridenda
Bittiria, 41 • 63 79 44
LESKA

Azaroaren 28tik abenduaren 28rat kultur ekitaldi ugari gauzatuko da

Herri mugakideen programan parte hartuko du Etxalarrek

PELLO APEZETXEA

Azkain, Bera, Sara, Senpere eta Etxalarrek hartuko dute parte 'Kultur hilabetea 97'n. Herri horietan denetan egingen da hainbat ekitaldi, zabaldu duten esku-programan ikusten ahal denez. Etxalarri dagokionez, Abenduaren 5ean, ortzirala, 8etan, 'Sorgintasuna' gaia duen hitzaldia emanen du Alizia Stürtze historialariak, eskola zaharretan. Hilaren 7an, igandea, Bortzirietako gazteek osatzen duten Giltzarri abesbatzak eskeiniko dizkigu bere kantuak elizan, 12,30etan. Ondoko larunbatean, 13an, Bertso eta Txiste Afaria izanen da Herriko Ostatuan, Estitxu Fernandez, Xabier Silveira eta Estitxu Arozena bertsolariekin eta Lasarteko Txiste



Kategoriako onddoa

Udazkena aitzineira joan ahala, ondoak urritzen joaten dira, baina, aunitz ez badira ere, aski ederrak izaten dira tarteka. Horietakoa Martin Indaburuk harrapatutakoa, kilo inguruko pisukoa.

Argazkia: Pello

10,30etan. Herriko Udalak lagunduta baina Altxata Elkartea da, bertze herrietako elkarre batzuekin batera, programa pentsatzen eta egiten ardura eta lana bere gain hartu duena.

Pilotalekuko lanak berehala hasiko dira

Urtea bukatu baino lehenago egin behar direnez, edo eta gutienez hasi, luzatu gabe ikusiko dugu plaza barrena aldamio eta materialez betea. Aintzineko pareta harriztatzea da lan nagusia. Ezker pareta eta zola hobetzen ere ariko dira. Eta pilotan ari direnei pilota biltzeko lana ttikituko zaie, jokatzen ari diren denboran sareak ingurua ixteko aukera izanen baitute, argia bixteko bezala bezala, saria ordainduz gero.

kontalariekin. Abenduaren 19an, ortzirala, 8etan, 'Herri turismoa' buruz mahaingurua izanen da. Eskola zaharretan. Toki berean, hu-

rrengo ortziralean, eta 8etan hau ere, Ur Apalategi idazle gaztea entzuteko aukera izanen dugu. Bere mintzaldian 'Herri eta hiri

literatura' gaia jorratuko du. Abenduaren 27ak eskeiniko digu hondarrek ekitaldia: Anariren kantaldia. Herriko Ostatuan, arratseko

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 63 74 29
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

TXIRULA
Albistur, 39-K
627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Eliza Fianbreak
Ondokiz betetako aza pastela
Nar eta Pikillo saltan
Ondoa nahasketa
Etxalarra ora zaharrena prestatutako usoa, ga-
leper arraultze eta gaztain puraz lagunduta
Gaztain eta Txokolat Pastela
635290
ETXALAR
udazkeneko
Menu berezia
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haitziarik
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: (948) 63 72 66

Internet ordenagailu sarean sartu da berriki herriko eskola

Abenduaren 10ean, bertzalde, Igantzi, Arantza eta Etxalarko eskolak bilduko dira

OSKAR TXOPERENA

Internet sarearen barruan sartua dago Igantziko eskola orain dela egun gutti batzuek honat. Guk dakigula behinpein, Interneten sartu den Igantziko lehendabiziko helbidea da, hemendik aintzineratu mundu mailan hain erabilia izanen den komunikabidean. Hona hemen helbidea, norberaren etxeko ordenagailutik eskolarekin harremanetan sartu nahi duenarentzat:

cp.igantzi@cfnavarra.es

Eskolaz ari garenez, abenduaren 10ean Etxalar, Arantza eta Igantziko eskolen arteko topaketa Igantzin izanen dela erranen dugu. Bertan izanen dituzte Kiko, Koko eta Moko pailazoak, haurren gozamenerako.



Kultur Eguna arrakastatsuak

Azken bolada honetan Igantzin egiten diren besta edo kultur ekitaldietaz aritzen garenean, gehiengutik ongi atera direla erraten dugunez, begi onez ikusi edo alde ona bertzerik ez diegula ikusten erranen dute zenbaitzuek. Ba oraingoan ere Kultur Egunez ezin deus txarrik erran. Jagoba Rekondoren hitzaldiak eman zien hasiera Kultur Egunei eta igande ilunabarra bitartean adin guztietako jendeak izan zuen modua ekitaldi hain ezberdinetaz gozatzeko. Berriz ere antolatu eta lan egin dutenen borondatea eskertu behar, ez baita egun horietan ikusitakoa bi egunez antolatzen.



Bada euskara talderik aurtan

Azkeneko alean informazio okerra eman genuen, euskara talderik ez zela osatu erran genuenean. IKAKo eus-

kaltegitik erran digutenez, aintzineratu jarraitzen du joan den urtean lehen urratsean hasi zen taldeak. Gustora zuzentzeko moduko akatsa.

Hiru haur bataiatu dira aurtan

Joan den igandean izan ziren udazkenean egiten diren bataioak. Joan den urtean tenore berean sei haurren ba-

taioa izan bazen, aurtan hirurena izan da, kopuru ttikiagoa baina polita halere: Xabat Matxi-kote, Haizea Txoperena eta Nerea Begino bataiatu dituzte.

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

SAROBÉ
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZATUN S.L.

Eraikuntza eta moldaketak
Despiezea eta makinaria
Mekanika mantenimendua

Igantziako Bentak • ☎ 627572 • Faxa: 637313

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

JOSE AGERRE

PINTURA LANAK



- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotelé
- Moketa eta zintasol

☎ 908.979306 • 637957 • IGANTZIKO BENTAK

ATM S.A.



- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaiaik.
- Mantenu rodilloak.

Igantziako Bentak • ☎ 63 74 11

ARANTZA

130 milioi pezeta inguru gosta diren lanak azaroaren 8an zabaldu ziren ofizialki

Rafael Gurrea lehendakariaren ondoan pankarta zabaldu zuten gazteek

ELIXABET ETA GARBIÑE

Plazaren zolaberri-
tzea, ur-hornidura eta
saneamendu sarea, gas
propanoaren kanaliza-
zioa, hilerrira joateko
bidea eta hiru labade-
roen teilatuen berritze
lanak azaroaren 8an
inauguratu ziren.
Ekitaldian, Nafarroako
Gobernuko lehendaka-
ri ordean Rafael
Gurrea izan zen eta he-
rritarrek lan hauen fi-
natziazioan eskainitako
laguntza goraipatu zuen.
Bere solasaldian zehar,
Gazte Asanbladako tal-
de batek «UPN espa-
ñol, Arantza Euskal
Herria da, Itoiz gelditu»
zioen pankarta za-
baldu zuten.

Joxe Ramon Amoros
alkateak erran zuenez,
lanik haundiena sarean
berritzea izan da, 115
milioi pezetako gastua-
rekin. Horietatik 80 mi-



Rafael Gurreak Gazte Asanbladakoak izan zituen ondoan

lioio Nafarroako Gober-
nuak ordaindu ditu.
Gainerako lanetan 16
milioi pezeta erabili di-
ra, dirulaguntza ofizia-
lik gabe. Horregatik, fa-
mili bakoitzak 220.000
pezeta ordaindu behar
izan ditu. Lan hauek le-

hengo alkateak hasi zi-
tuela gogoratu zuen.

Garbiketa lanak

Lehiaketa publikoa
zabaldu du Herriko
Etxeak, 1998an kon-
tulta, Herriko Etxea eta
eskoletako garbiketa

zerbitzua egiteko.
Abenduaren leko arrat-
saldeko 3ak arte ireki-
ta dago epea nahi diren
proposamenak aurkez-
teko. Baldintzak Herri-
ko Etxeko idazkaritzan
daude eta abenduko oso-
ko bilkuran irekiko di-

ra lehiaketara aurkez-
tutako proposamenak.

Eskulak ikastaroa

Eskulak egiteko
aukera ederra dago
orain, astearte arratsal-
dero ikastaroa izanen
baita, apuntatu nahi du-
tenentzat. Horretarako
Rakel Arozenari deitu
behar zaio.

Baserritarren Eguneko zozketa

Baserritarren egune-
an zozketatu zen zarea,
Kaikubordako Petrari
egokitu zitzaion eta ent-
ziklopedia Antonio
Goñiri.

Bataioak azaroaren 30an izanen dira

Aurten bataioak aza-
roaren 30ean izanen di-
ra eta bataiatuko dituz-
ten haurrak Mikel Oteiz-
a eta Sara Almandoz
lehengusuak izanen di-
ra.

ANTZUZELA
S.L.

Inongo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaleak	Tximinak
Angulak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrak
Pilareak	

'Abuzkako' Mazorra
Zahar antzoko Tzupetua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

**ALBERGEA
JATETXEA**



☎ 634179
ARANTZA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



**GRUPO
ZURICH**

**ASEGURO
OROKORRAK**

Itzea, 4 • BERA
☎ 63 07 63

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



**FOTO
GOIKO**


Altzate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

SUNBILLA



129 kiloko basurdea hil dute Sunbillako ehiztariek

Ez dabilta makal gure herriko ehiztariak, ez horixe! Azaroaren 8an, basurde ehizian zeudela, hara non aurrean jarri zitzairen 129 kiloko basurde ikaragarria. Pantxok zauritu zuen eta Josetxo Apeztegiak hil. Ez da aipatu beharrik, piztia mugitzeko erabili behar izan zituzten trikimailuak (argazkia ateratzeko ere estu eta larri ibili baitziren). Orain garbi dago ez dagoela kanpora joan beharrik ehizira, herrian bertan gelditzeak, aunitan mesede egiten duela. Ea laister marka hau gaintitza lortzen duten!

Argazkia: Tiburcio Espelosin

Frontoiko lanak borts edo sei hilabetetan akituak egonen dira

JAIONE ETA ALBA

Azkeneko alean egin genuen okerra zuzendu nahiko genuke, gaizki ulertu baten ondorioz,

frontoiaren moldaketak bederatzi hilabete iraunen zuela aipatu bait genuen. Geroztik, jakin dugu datu hori gaizki dagoela eta borts-sei hilabeteko lana izan den de-

la frontoia moldatzea.

Beraz, ez da horrenbertze esperatu behar: ko pilotaleku berrituan pilotan, futbitoan edo bertze edozein kirolertan aritu ahal izateko.

LANA

Lanbide Orientazio Zerbitzuak martxan segitzen du

Itziar Urbiola eta Pili Vicente dira zerbitzua eskaintzen dutenak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako iparraldean bizi diren pertsonen informazio, prestakuntza eta lanbiderako orientazio premiak betetzeko helburuarekin, Lanbide Orientazio Zerbitzua sortu zuen otsailan Cederna-Garalur erakundeak Nafarroako CEIN enpresaren laguntzarekin, Aton-Mosaïque programaren barnean.

Urte erdia pasatu ondoren, hainbat lan kontratu bideratu dituzte Leitzaldeko eta Baztan-Bidasoako bulegoetan. Pili Vicente da Leitzaldeko teknikaria eta Itziar Urbiola, berriz, Baztan-Bidasoakoa.

Ordutegia eta lekuei dagokienez, Leitzan, astelehenetan, goizeko

11etatik 2etara eta asteazkenetan, arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara Udaletxeko bigarren pisuan.

Donezteben, Juan senean asteartetan 11etatik 2etara (452462 telefonoan). Lesakako Herriko Etxean, hilabeteko lehen eta hirugarren ortzegunetan eskainiko dute zerbitzua 11etatik 2etara (637061) eta Berako Herriko Etxean, hilabeteko bigarren eta laugarren ortzegunetan, ordutegi berdinarekin (630005). Elizondon, azkenik, Balleko Etxean, astelehen eta asteazkenetan, 11etatik 2etara (452462). Honetaz gain, Itziar Urbiolarekin e-mail bidez jar daiteke harremanetan. Helbidea: iurbiola@cin.es.

ALDABE
TAXIA

DONEZTEBE
☎ 450687



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK


- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE



ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- | | |
|----------------|----------------------|
| • Caramelo | • Bonaventure |
| • Ralph-Lauren | • Diesel |
| • Lacoste | • Liberto Club |
| • Genfis | • Scotch & Soda |
| • Barbour | • Cheyignon |
| • Redskins | • Replay • Levi's... |

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 • IRUN

DONEZTEBE

INEMek bulego berria estreinatu du Maestruen Etxean

Lehen zegoen etxea bota dute autobus geltokia egiteko

TXEMA ALDABE

Maestruen Etxean obra egin eta trasteak alde batetik bertzero aldatu ondotik, azaroaren 10ean ireki zen INEMek Nafarroako ipar-mendebaldean duen egoitza berria. Konkretuki, Maestruaren etxearen lehenbiziko pisuan dago INEMa, DYAk duen pisuaren ondoan. Denetara 120 metro karratu ditu bulegoa eta sotoan duen artxiboaren artean eta egokitze lanak 5 milioi pezeta inguru gosta dira. Lehen eta orain, Doneztebeko herriarenak diren etxeetan dago, maizter-kontratuarekin.

AUTOBUS GELTOKIA

Berriki arte INEM eta Doneztebeko Hiltzgia biltzen zituen etxea bota egin dute joan den astean. Leku horretan autobus geltokia eta zain egoteko aterpea eginen dute. Horretaz gain, urbanistikoki inguru hori egokitzeko aprobetxatuko da. Lanak dagoneko hasiak dira.



Gloria Agerri, Doneztebeko INEMeko arduraduna bulego berrian. Beheitian, autobus geltokia egiteko lanak

J.M. Irigoien

flash

Zinea

Azaroaren 29an eta 30ean «Eddie» pelikula eskainiko dute Doneztebeko zinean. Larunbatean, gaueko 10etan eta igandean, arratsaldeko 5etan eta 8etan.

Doneztebeko Feriak

Joan den ortziralean, azaroaren 14an, ospatu ziren. Eguraldi hotza egin zuen, baina ateri egon zenez, hainbat lagun hurbildu ziren azientak ikusi eta herrian ezarritako salmenta postu ugarietan erostera.

Euskaltzaleen Topaketak

Arras balantze positiboa egin dute Euskara Zerbitzutik, azaroaren 4ean akitutako Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen Topaketetaz. Zonalde osoko 64 lagunek eman zuten izena eta banaz-bertze 40 bat lagun joan omen dira Juanseneako saioetara. Jendea gustora gelditu dela uste dute, baina hori jakiteko eta proposamenak biltzeko inkesta egin zuten partehartzaileen artean.



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



BELARRA

OSTALUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06



ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

ETXANDI
TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

MALEERREKA

Zuzendari-gerentea kontratatze deialdia zabaldu du Bertizko Partzuergo Turistikoak

Kurrikulumak azaroaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira INEMen

TTIPI-TTAPA

Bertizko Partzuergo Turistikoko zuzendari-gerentea izateko deialdia luzatu da. Lanpostu hau betetzeko baldintzak honako hauek dira: Erdi edo Goi mailako titulazioak izatea Ekonomi eta Enpresa Zientzietan, Turismoan edo Zuzenbidean eta titulu hori, azken lau urteotan lortutakoa izatea. Honetaz gain, euskaraz jakin beharko da eta gidatzeko baimena eta kotxea izatea nahitaezkoa izanen da.

Curriculum Vitaeak aurkezteko azken eguna azaroaren 28a, or-



tzirala, izanen da, Doneztebeko INEMen bulegoan. Interesatuak informazio gehiago eskuratzeko aukera izanen dute Bertizko Partzuergo Turistikoan bertan (59 23 23 telefonoan) edo Doneztebeko INEMen bulegoan (45 03 09). Orain arte gerente lanpostua bete duen Manolo Lizardi elizondarrak azaroaren 24an utziko du bere kargua. Halere, oraindik es-

Manolo Lizardi izan da orain arte Partzuergoko gerentea

Artxiboa

ku artean dituen gaiak lantzen segituko du arratsaldetan, langileberria hasi bitartean.

Artisautza-denda errentan emateko deialdia

Bertzalde, Bertizko Landa-turismo Zentruko artisautza denda errentan emateko deialdia ere luzatu du Partzuergo Turistikoak. Eskerak aurkezteko azken eguna abenduaren 15a, eguerdiko 2etan izanen da, Partzuergo Turistikoaren bulegoan. Informazio gehiago nahi izanez gero 592323 telefonora deitu beharko da.

Zenbait lan burutzen ari dira Donamaria, Oitz eta Labaienen

Nafarroako Gobernuak emandako laguntzaz hartu dira langileak

TTIPI-TTAPA

Malerrekako zenbait herrietan lanak burutzen ari dira hilabeteotan, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz kontratatutako langileen bitartez.

Donamarian, akitu berriak dituzte base-rietarako pistak ormi-goiztatzeko lanak. Bi hilabetez lau langile aritu dira Antxonkoborda, Komizkoborda eta Berrau baserrietarako bide zolaberritzen.

Oitzen ere joan den astean akitu zituzten lanak. Hiru lagun aritu di-



Oizko paretak pintatzen aritu dira

Artxiboa

rahiru hilabetez, paretak konpontzen.

Labaienen, azkenik, hilaren 30ean akituko dute lanekin. Hiru hilabeteotan lau lagun ari-

tu dira, errota zaharretan konponketak egiten. Joan den urtean teiltua moldatu bazuten, aurtentzako paretak luzitzen eta pintatzen aritu dira,

leihoak eta patioa itxuraberrituz.

«Udazkeneko Bira»

Malerrekan Udazkeneko Biraren barnean egiten ari diren ekitaldiak aitzinera doaz. Joan den astean «Rainbow» filmea eskaini zuten Donamarian eta azaroaren 30ean, igandea, San Fermin abesbatza-aren emanaldia izanen da Urrozko elizan, eguerdiko 12,30etatik aitzinera. Iturenen, azkenik, abenduaren 8an eguerdiko 1etan, Baztango dantzariak arituko dira plazan.

Beintzako frontoia eta plaza ingurua moldatuko dira

Beintzako frontoia hobetzeko eta plaza ingurua itxuraberritzeko lehiaketa publikorako deialdia zabaldu du Beintza-Labaiengo Herriko Etxeak. Hasierako errekontua 10.705.464 pezetakoa da (BEZa barne) eta behin lanak ematerakoan, bi hilabete epea izanen da hauek akitzeko. Proposamenak abenduaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan. Proposamenak abenduaren 9ko eguerdian zabalduko dira.

Eta, azkenik, Feria Eguna Lesakan

Duela ia 500 urte, 1499.ean, Juan de Albret Nafarroako Erregeak emandako eskubideari segida emanaz, ortzegun honetan, azaroak 20, ospatuko da Lesakan Bortzirietako Feria Eguna. Egitaraua asteazkenean zabalduko da, Merkatu Egunarekin. Halere, ortzeguna izanen da egun nagusia. Beti bezala, azienda feria ez ezik lehiaketa ere izanen da goizean.



ZIOBI Ostatua

Pintxoak, Bekadak... giza jaseria

Albistur, 21 Tfnoa: 63 72 29 • LESAKA

Labekoak Goxotegia

© 63 70 75 • Arretxea, 24 • LESAKA

Azken urteotan zaldi azienda nagusitu da Lesakako Plazan, baina ardiak ere izanen dira.

Arg.: TELLETXEA

* IZARRA *

OKINDEGIA

Ongi pasa ferietan!

Plaza Zaharra, 13
© 63 78 55 • LESAKA



SIÑA

*Gizon emakume eta haurren
jantxidenda • Bitxiak*

Albistur 3, behea • © 637951 LESAKA

ETXARTE

bitxidenda
erlojudenda
Kirol Trofeoak

Albistur karrika, 1
© 637205
LESAKA



Bortzirietako azie sarituko dira Lesa

Egitaraua berez asteazkean hasiko da, Merkatu Eguna. Azken zazpi urteotan bezalaxe, arrats partean ajoarriero lehiaketa antolatuta du Beti Gazte elkarteak. Gero, Herriko Etxeak, musika paratzen du plazan, aurtengoan Lesakako akordeolariak arituko direlarik. Gainerakoan, feria bezperan ez da animazio handirik izaten. Hori bai, biharamonean beraien postuak paratuko dituzten saltzaileak ahalik eta hobekien lekutzen saiatuko dira.

Azienda lehiaketa Feria Egunean

Doneztebe eta Elizondon azienda ferriak burutzen badira ere, Lesakakoa da eskual-

dean azienak saritzen dituen feria bakarra. Horretarako goizean goiz hasten dira baserritarrek euren behi, aretze, zaldi, behor eta ardiak ekartzen. Guziek izanen dute dieta bat, plazara agertzeagatik bakarrik, baina onenek sari inportanteak izanen dituzte (30.000 pezeta arraza ezberdineko behi onenen kasuan). Halere, zenbait baserritarren ustez ez da sobera, herrira azienda eramateko garraioa behar baita eta goizean azienetatik arduratuko den norbait eduki. Harat-honatean abereak ez beharren bat sufritzeko arriskua ere hor dago. Azken urteetan pottoka batzuk eta ehi-zi zakur bat edo bertzte ikusi da. Bertzalde, orokorrean ez da apenas traturik egiten Feria Egunean eta azienak ikuste-



TELEBOTE OSTATUA

Feria onak pasa!

Arretxea, 10
Tfnoa: 637188
LESAKA



BERRIZAUN TAILERRA

LESAKA GASOLINDEGIA

- Autoen konponketa
- Errebisioak
- Auto erabilien salmenta

Tel. 63 74 60 • Albistur 57 • LESAKA

FAGOAGA HARATEGIA

Albistur, 19 • Tfnoa: 63 78 69 • LESAKA

MARIXUS Elektragailuak

ENETERREAGA ANAI-ARREBAK

Zarandia, 3 • © 63 70 70 • 31770 LESAKA

- Bertako zerbitzu teknikoak
- Elektrizitatea eta antenak (parabolikoak, kolektiboak...)
- Iturgintza eta bainuak
- Biltegia



KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA



Aranguren

Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihok
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

Aizu, eta zer dira Gizarte zerbitzuak?



Zer garen gu?

Bizitzan zehar era ezberdinetako arazoekin topo egiten dugu nahi baino maizago: diru eskasia, eguneroko kontuei aurre egiteko zailtasunak, edadeko pertsonak zein ezinduak zaintzeko beharra, etab... Halako arazo zehatzak konpontzeko

nora jo ez dakigula gelditzen gara batzuetan, eta hor hasiko litzateke gure lana, GIZARTE ZERBITZUAK izenaren atzea lanean ari garen jendearena, alegia.

Hauek Herriko Etxe eta Mankomunitateen menpe daude eta debaldekoak izaten dira beti. Herri bakoitzetik bertatik jendearen bizimodua hobe-

tzen eta norberak zein familiak pairatzen ahal dituzten arazoak konpontzen saiatzen gara.

Gure zonaldeko Gizarte Zerbitzuetan badaude hainbat pertsona behar horiek bideratzen aritzen direnak: hoiengan artean familia langileak, hezitzaileak, administrariak eta gizarte langileak. Horixe gara gu...



Bortzirietako Gizarte Langileak.

HARRERA INFORMAZIOA ORIENTAZIOA

- Garaian-garaiko errekurtsu, eskubide eta betebeharrak sozialen berri.
- Arazoak dituzten familia edo pertsonen laguntza, aholku eta babesa eskeintzen diegu.
- Jendearen premien arabera, kasua aztertu eta aholku eta konponbiderik egokiena aurkitzen saiatzen gara.

ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

Zerbitzu hau jende guzari zuzendua egonik ere pertsona hauei eskaintzen zaie bereziki:

- 65 urte baino gehiago izaki, beren burua zaintzeko gauza ez direnei.
- Elbarriek.
- Eritasun larrian edo hilzorian dauden pertsonen.
- Beharrean aurkitzen diren familia eta pertsonen.

Garbiketa pertsonala, etxeko lanak, erosketak, konpainia...

Une honetan 91 pertsonak jasotzen dituzte gure atentzioak.

Zer egiten dugun?

EGOKITURIKO LAGUNTZA

ADINTUENTZAKO

- 65 urtez goitiko pentsionerik gabekoentzako **Pentsio Ez Kontributiboak**.

- Pentsione eskasa korbratzen dutenentzako **Laguntza Bereziak**: antiojuak, ohatze artikulatuak, grua...erosteko.

- Erresidentzietako plazak ordaintzeko **Diru Laguntzak**.
- Larrialdietako **Telefonoa** jartzen laguntzen dugu.
- **Bainuetxeetara** edo **INSERSO**aren bidaletara joateko eskaerak.

EZINDUENTZAKO

- **Ezindu Kalifikazioa**, hainbat laguntza eta errekurtsuentzako atea.
- Diru sarrera eskasekoentzako, **Pentsione Ez Kontributiboak**.
- Egoera ekonomiko txarrean daudenentzako, erresidentzia edo zentru berezia ordaindu behar dutenentzako eta kotxea egokitu edo berria erosi nahi duten ezinduentzako **Diru Laguntzak**.

HAUR ETA GAZTEAK

- Umeen abandonua ez gertatzeko **Laguntza Ekonomikoa**.
- Aldibaterako **Ordezko Familiak** bilatzen ditugu.
- **Adopzioari** buruzko informazioa.
- Etxean bertan **Familia Heziketa Programak** antolatzen dira.

FAMILIA

- **Oinarritzko Errenta** lortzen diegu behar gorrienak betetzeko diru-sarrera nahikorik ez dutenei.
- Oinarritzko Errenta duen pertsona bat kontratatzen duenari **Subentzioak** lortzen dizkiogu.
- Egoera larrian dauden familiei **Diru Laguntza Bereziak** eskuratzen ahal dizkiegu, errenta ordaintzeko, beharrezko mobleak erosteko...
- **Tratu Txarrak** jasotzen dituen emakumeari informazio eta orientazioa ematen diegu.

2010. urterako herrialdean
kontsumituko den haina
argindar produzitzea,
bainan energia
berriztagarriak
soilik erabiliz.
Horixe da Nafarroak
mahaigainera bota
duen erronka, eta
bide horretan
emandako
lehendabiziko
urratsak aski
ezagunak ditugu denok:
parke eolikoak.

HAIZE PARKEAK

Energia garbien aldeko apostua

2-3. HAIZE PARKEAK:

Leitza-Berueteko haize-parkea martxan paratu zutenetik urte bat pasatu da dagoeneko, eta balorazio ttiki bat egiteko tenorea da. Lehenbiziko urte honetan espero zena baino etekin murriztagoa atera zaio, bainan arduradunak kontent agertu dira.

4-5. BETIZUAK:

Betizuak bezalaxe, bertze zenbait bertako animalia arraza desagertzeko arrisku larrian daude.

8. SORGINKERIA: «Sorginkeria; gaitz guziendako estalkia... errepresio guziendako bidea», hirugarren kapitulua. Juinas PAUL.

12. ELKARRIZKETA: Etxalarko Lizarietako lepoan ehiza denboraldi osoan zehar pasatzen diren txoriei begira ematen duten behatzaile horietako batekin mintzatu gara, usoen eta ehiztarien ohituretz.

HAIZE PARKEAK

Energia garbien aldeko apostu gogorra egin du Nafarroak

Momentuz 3 haize parke daude herrialdean baina proiektuan badira bertze hainbat ere

Erregai fosilak behin betikoz bazterrean utzi eta energia berriztagarriak sustatze aldera gauzatzen ari diren proiektu gehienek parke eoliko itxura hartu dute orain arte.

Nafarroako hainbat mendi kaxkoetan onddo erraldoi hauek hazten hasi zirenean batak baino gehiagok bere kezka agertu zuen halere, «egunen batean mendi tontor gazieta-rik ikusiko dira».



Leitza-Berueteko parkean, adibidez, 32 haize-erota ikusten ahal dira, hiru lerrotan bereziak.

Nafarroan ez dugu zentral nuklear edo termikorik -eta ezta beharrik ere-. Bi energia mota hoiek ezagutzen diren kutsagarri eta arriskutsuenak izanik eskertzekoa bada ere, honek ez du erran nahi egun Nafarroan produzitzen den energia guztia garbia denik.

Halere, Europa osoan (Frantzia bezalako herrien salbuespenarekin) energia iturri berriztagarrien alde egin den apostua onartuz, Nafarroak erronka garrantzitsu bati egingen dio aurre datozen 13 urte hauetan. Helburua oso zehatza da, 2010. urterako herrialdean kontsumitzen den bezainbeste argindar produzitzea, baina energia garbiak soilik erabiliz.

Bide horretan doaz energia eolikoarekin azken urteetan egin diren saiakerak. Momentuz herrialde osoko kontsumo elektrikoaren %10a hornitzen da energia eolikoaren bitartez, eta arestian aipatu dugun epe horretan %45eraino hazi beharko luke.

Argindarraren %100

Erran bezala, kontsumitzen dugun argindarraren %100a energia berriztagarrietatik ateratu ahal izateko, eolikoaz aparte bertze energia garbi mota batzuk ere sustatuko ditu Nafarroako Gobernuak. Horrela, energia hidraulikoak %38a hornituko luke, biomasak (zur-industriaren hondakinak edo sasiengisako erregaia erabiltzea energia sortzeko) %16a eta azkenik, Gongorako zaborren erreziklatatik aterako da %1a (lurperatutako zaborrek ixurtzen dituzten metano ugaridun gasak baliatzen dira han).

Energia garbiei buruz zerbait gehiago dakigula, testuinguru horretan protagonista

bihurtu diren haize-parkeak izanen ditugu mintzagai hurrengo lerroetan.

Orain artio hiru dira energia produzitzen duten parkeak, Gerindakoa, Erreniegakoa (El

«Helburua oso zehatza da, 2010. urterako herrialdean kontsumitzen den bezainbeste argindar produzitzea, baina energia garbiak soilik erabiliz».

Bere garaian parke berriak egiteko dozenaka proiektu aurkeztu zituzten 3 enpresek, EHN (Nafarroako Energia Hidroelektrikoak), DERSA eta Eólica Navarrak hain zuzen, eta-

horrenbestekoa zen masifikazioa non hondarrrerako aferan esku hartu eta zenbait proiektu atzeratu behar izan zituen Nafarroako Gobernuak, gure eskualdean kokatzekoak ziren Sorrañati, Belate eta Iruñarrikoak hoienean artean.

EHNko arduradunetako bat den José Arrietak adierazi digunez, «guri Gobernuak 18 parke onartu zizkigun hasiera batean, baina

gure helburua ez da parke aunitz egitea, potentzia orokorreko helburuak betetzea bai-

Perdón) eta gure eskualdean, Leitza eta Beruete artean lekutua dagoen Aritzeko parkea.


zik, eta horretarako nahia-
go dugu dimentsio haundie-
tako parke gutti egitea, par-
ke ttiki aunitz egitea baino».

Kezka ekologikoa

Haize-errotak ugaltu di-
ren heinean, ingurunea itxu-
raldatuz joan da eta gizarte-
ko sektore aunitzek bere kez-
ka agertu du horren aurrean,
energia garbien aldekoak iza-
nagatik ere, paisaiari egiten
ari zaion zauria gehiegizkoa
dela uste dutelako.

EHNkoek beraiek ere
kontuan hartzen dituzte par-
ke eolikoek sor ditzazketen
kalte ekologikoak, eta hori
nolabait baloratu eta mu-
rrizteko asmoz «lantalde ba-
tzuk sortu dira inplikaturik
dauden udal taldeak eta bio-
logoak biltzen dituen.
Hauen lana parkeen jarrai-
pena egitea da» dio Arrie-
tak. ■

**«Horrenbestekoa
zen parkeen
masifikazioa non
bondarrerako
aferan eskubartu
eta zenbait proiektu
atzeratu behar izan
zituen Nafarroako
Gobernuak, gure
zonan kokatzekoak
ziren Sorattipi, Belate
eta Iruñarrikoak
boien artean.**



Animaliak ohitu egin dira errota erraldoiekin elkarbizitzera.

Leitza-Berueteko Haize Parkea

DATUAK

Inbertsio
osoa

2.500
milioi

Udalen
irabaziak

Leitzak
4,5 milioi
Beruetek
5,1 milioi

Produktzioa

40 Kw/
orduko
(hasierako
prebisioak
44 Kw/
ordukoak
ziren)

Haizerik
egokiena

Hegoekialde
eta haizegoa
Makurrena
Ipar-haizea

Hilabeterik
onenak

Azaroa, abendua,
urtarrila, maiatza
Hilabeterik
eskasenak
Ekaina, uztaila,
abuztua eta iraila

Haizearen
abiadura

7,2
m/segunduko
bataz beste

45
metro luze

✱ PALA BAKOITZAK
20-21 METROKO LUZERA DU.

✱ ERROTEK 500 EDO 600
KW.EKO POTENTZIA DUTE.

✱ 1.000 KILO PETROLIO ERRETA
SORTZEN DEN ENERGIA BERA EKOIZTEN DU
500 KW.EKO ERROTA BATEK.

✱ LEITZA-BERUETEN 32 ERROTA DAUDE
EGUN, BI LERROTAN BANATUTA.

✱ ERROTAK DISTANTZIARA KONTROLATU DAITEZKE.
IRUÑEATIK BERTATIK TELEFONOZ, EDOTA ORDENADORE BIDEZ.

✱ HAIZEAREN ENERGIA ZINETIKOA JASOTZEN DUTE ERROTEN
GAINEKO ALDEKO TURBINEK, ETA HANDIK GENERADORE BATERA
BIDALTZEN DUTE, HAN ARGINDAR BIHURTU DADIN.

• Nola funtzionatzen dute?

Haizearen indar zinetikoa energia elektriko bihurtzeko pun-
ta-puntako teknologia erabili dute. Errota hauen osagai guziak
Euskal Herrian eginak dira, eta Gamesa Eólica arduratzen da
mantenimenduz. EHN enpresak, halere, 3 lagunek mante-
nimendu taldea izendatu du mantenimenduan laguntzeko, hoi-
en artean Ander Udaeta beratarra.

Anderrek azaldu digunez, «Leitza-Berueteko parkean dauden
32 errotek behar bezala funtzionatzea» da bere lana, «errota eza-
rri eta hirugarren hilabetearen txeko bat egin behar da, sei hilabe-
tetara bertze bat, eta urtea igaro denean hirugarrena. Hori da erro-
tak eskatzen duen mantenimendua». Bertzetik, «tornilloak behar
bezain estu dauden, grasa nahiko duen edota nonbaitetik fugaren
bat duen begiratzea» ere Ander eta bere lankideen eskuetan
dago.

Palek denbora guzian haizearen kontrako norabidean egon
behar dute mugitzeko, eta horretarako haizeorratz bat dago
errota gaineko turbinan, eta honek agintzen die palei ze no-
rabitetan begiratu.

Guttienez 16 km/orduko abiadurako haizea behar da palak
mugitu eta argindarra sortu nahi bada, eta Aritzeko parkean,
adibidez, 27 Km/h-ko haizea izan ohi da, bataz bertze. Halere,
haizeak 90 Km/h-ko abiadura gaintu ezker, palak automa-
tikoki blokeatu egiten dira, segurtasun neurri gisa.

ABELTZANTZA

Desagertzeko punttuan daude betizua eta bertze zenbait bertako arraza

Nafarroa osoko 17 esplotazio partikular ari da ITG-arekin elkarlanean, desagertzeko arriskuan dauden bertako zenbait arraza berreskuratu nahian, hoi artean Arantzeta eta Goizueta zenbait abeltzain. Betizua bezalako espezieak indarberritzea dute helburu, gaur egun arraza horretako 250 bat buru baino gehiago ez baita izanen, ITGaren datuek diotenaren arabera.



Betizua ez ezik, pottokak ere gero eta urriagoak dira, batez ere arraza garbikoak. Eskualdean Sara aldean ikus daitezke pottoka talde koxkorak, eta betizua, berriz, Goizueta inguruko mendietan.

Bortz urteko plan berri honen bidez, ITGarekin kolaboratzen duten abeltzainek Betizu arraza hedatu eta hobetzeko konprometua hartu dute, eta lan horren truke urtero 10.000 ptako saria jasoko dute hazitako animali bakoitzeko. I+G (ikerketak eta garapen estudioak) delako proiektuaren barnean kokatzen den ekimen hau, ITG-az gain bertze zenbait arrazako animalien zenbaketa egiteaz arduratzen da.

Desagertzeko arriskuan

Nafarroan, hauexek dira desagertzeko arriskuan dauden animalietako batzuk: Nafarroako Behorra, Pottokak, Burgeteko Zaldia, Piriniotako Ahuntza eta Nafarroako Zakurra (*Pachón Navarro*). Azken honen ingurukoa ez dute batere garbi ITGkoek, iturri batzuen arabera guztiz galdua baitago gisa horretako zakurra, eta bertze batzuk diotenaren arabera berriz, oraindik bakarren bat geldituko litzateke herrialdean. Hala ere, errekupeazio planaren xedea animalia hoi zenbaketa orokorra egitea da,

ondoren errekupeazio planik beharko balitz segituan martxan jarri alde.

Mestizaia dela kausa
Zergatik desagertzen da espe-

goela. Animalia batek mestizaia maila altua baldin badu desagertzeko arriskuan izanen da, eraberean, eta horrelako zerbait gertatu zaie bertako espezie batzuei, Baztango Zerrari, errate-rako.

ITGaren errekupeazio planak irizpide kulturalak eta aberastasun genetikokoak hartzen ditu

haintzakotzat, eta ez interes ekonomikoak soilik.

Betizua

Apenas gizakiaren kontrol gabe hazten den behi espezie bakarretakoa izanen da Betizua, Iberiar penintsulari

dagokionean behinpin. Bertze espeziekin alderatuz tamaina txiki xamarra duen behi basati hau (200-300 kilo emeek eta 300-400 arrek) arras izaera uzkurreak da, hezikaitza eta oldarkorra izan ohi da sarritan. Historikoki, bestetako sokamuturretan eta erabili izan dira betizua, baina berez mendian askatasun osoz bizitzera ohituak daude, urtean behin edo birketa egiten den arren.

Betizua haragia kalitate eskasekoa denez, etxekoan artean kontsumitzen dira aretxeak. Zenbaitetan, gainera, eskopeta erabili behar izaten dute abeltzainek betizua harapatzeko orduan, arront basak bihurtzen baitira.

Euskal Herriko mendietan betizua ugaria izan zen garai batean, baina gaur den egune-

«Nafarroan, hauexek dira desagertzeko arriskuan dauden animalietako batzuk:

Nafarroako Behorra, Pottokak, Burgeteko Zaldia, Piriniotako Ahuntza eta Nafar Zakurra (Pachón Navarro)».

zie bat? Bada, kanpoko arrazen influentzia genetikoa biltu behar dira arrazoi nagusiak. Zenbakietara pasatuz, arraza bateko 3.000 animalia baino guttiago gelditzen direnean, orduantxe erraten da arraza desagertzeko arriskuan da-



an 250 buru baino gehiago ez da izanen Nafarroa osoan, eta Bizkaia, Gipuzkoan eta Iparraldean ere aski gutti ikusten dira. ITG

Ganaduzaleak mestizaia haundirik gabeko betizuen jabe diren 12 esplotazio aurkitu ditu gure herrialdean, Leitza, Baraibar, Goizueta eta Arantzan batez ere. Esplotazio hoietako 7 (86 bururekin, guztira) errekupeazio planean parte hartzeko prest agertu dira.

Errekupeazio planen helburua, erran bezala, betizu arrazarekin ahalik eta purutasun graduarik haundiena lortu eta arlo produktibotik ateratzea litzateke, bertan ezin baita bertze espezieekin lehiatu.

Euskal Herriko mendietan betizua ugaria izan zen garai batean, baina gaur den egunean 250 buru baino gehiago ez da izanen Nafarroa osoan.

Euskal mendietako azken basatiak

Betizua bezalako animalia batek jakinahia bixten duen zenbait ezaugarri baditu berez. Batetik, berta-bertakoa dugu, betidanik gure mendietan bere gisa hazia, eta hainbat leienda eta mitoren sortzaile.

Bertzetik, gaur egun desagertzeaz egoteak euskal behi honi buruz galdegitera bultzatu gaitu, eta horretarako duela 7 urtetik honat betizuak hazi dituen Arantzako abeltzain batengana jo dugu. Bere izena eta argazkirik eman ez badigu ere, betizuen inguruko hainbat argibide bai, eta horixe zen, finean, bilatzen genuena.

Hona, bada, betizuak zer diren, zer jokabide erakusten duten eta haien bizi ohituren berri, animalia hauek ongi ezagutzen dituen abeltzain honen testigantzan bildurik:

«Nik 10 betizu ditut, baina denak ez dira arraza garbi-garbi-koak. Gaur egun Mendaur inguruan eta Arantzako mendietan barna kontzen ditut.

Diputazioak duen finka batean, Agoitz inguru horretan, 30 bat betizu dituzte, eta hoiek salbatzea ezinbertzekoa da. Hortik kanpo Goizuetan ikusten dira betizu garbiak, bertze lekuetan gutti. Arraza errekupeatzea zaila izanen da, halere. Inori ez zaio interesatzen horrelako arraza bat mantentzea.

Gorria, ttiki xamarra eta meharra

Betizuak gorria, ttikia eta meharra behar du izan. Behi pirenaiakoarekin konparatuta behi txar bat da betizua. Errapeak ttikiak eta iletsuak ditu. Adarrak nahiko zorrotzak eta desarroilatuak ditu, adinarekin desarroilatzen zaizkio. Hagitz inportantea, ere, sudurra arros kolorekoa izatea, eta begien buelta ere zuri xamarra.

Izaera aldetik nahiko basak izaten dira. Gure mendi hauetan, dena baserriak, pistak, mendizaleak, artzaiak eta bertze abeltzainak izaki... animalia mantsoxeagoak behar dira, eta neriak hala dira, mantsoxeagoak. Ikusi dudanez, hagitz ibiltariak dira, eta garai batean nahiko migratzaileak izanen zirela pentsatzen dut. Urtaro bakoitzerako badute mendi bat. Umatzeko garaian ere animalia basatien ohiturak dituzte, emeak taldetik bereizten dira eta ez dira itzultzen umeak 2-3 aste izan arte.

Nik udan zezena beti biltzen dut, bertzeetatik bereixi, inorekin arazorik ez izateko. Gero neguan elurrarekin-eta ongi moldatzen dira, azienda gogorra da.

Jerarkia zorrotza

Euren artean animalia basatien portaera dute, hagitz jerarkizatutako taldeak dira, eta haien arteko arauak behar bezala errespetatzen ez duenari egurra ematen diote. Jerarkia adinak markatzen du eta hortaz, agintea behi zaharren esku dago. Zezenak, bere aldetik, badu estatus berezi bat, denek errespetatzen dute, baita behi zaharrek ere. Ez da gaiztoa bertzeekin, ez du demostratu behar bere boterea, bertzeek ordea, bai. Jerarkia hori mendirat eramaten dituzunean ikusten da ongi. Gidariak bidea hartu arte ez dira ibiltzen hasten, baina behin harek bidea segitzen duenean denak gibelera lotuko zaizkio, formazioan. Bere tokitik deskuiduan bakarren bat atera eta dagokion tokian ez bada sartzen, jokatu egingen zaizkio bertzeak. Neurri hauek defentsa eta integratzaile izanen direla uste dut.

Bertzetik, nolabaiteko talde-nahia ere badute. Ez dute aisa laguna gibelean uzten. Denak bildu arte ez dute segitu nahi izaten.

Betizua arriskutsua izaten ahal da leku itxi batean subertu ezker, ez bazaitu ezagutzen, umeakin edo zezenarekin badago, baina sobera mito dago hortik aparte.

Betizuak badaki toki batera nondik sartu den eta nondik atera behar duen. Orduan, aitzinean baldin bazaude azpian harrapatuko zaitu beharbada. Ez da zu jotzera joanen baizik eta ihesi joanen da, eta zuk traba egiten badiozu min ematen ahal dizu, hori da behinpin nere susmoa. Betizuak ez du enfrentamendua bilatzen, normalean eskapo joanen da gizakien aitzinean, bertze animalia gehientsuenak bezala».

ESTATISTIKA



520.574 lagun bizi gara gaur egun Nafarroan

520.574 biztanle ditu Nafarroak, 50 bizilagun Km²ko dentsitatearekin, eta guzti hoiene %31,9ak Iruñean du etxebizitza.

Gisa honetako datuak bildu dituzte Nafarroako Gobernuko Estatistika Zerbitzuak, Euskal Estatistika Institutuak eta INSEE-Akitaniak elkarlanean egin-dako dokumentu batean. Nafarroan langabeziaren tasa %11 inguruan kokatzen da eta emakumeen aktibitate tasa arrastikia da, bestalde. Gazteen langabezia tasa ere Europako mediaren gainetik omen dago, %21,3an hain zuzen ere.

ISTRIPUAK



Hemeretzi lagun hil dira aurtan Nafarroan lan istripuetan

Azaroaren 11n Erriberako herri batean, Murtxanten, izandako azken heriotza kontutan hartuz, guztira 19 langilek galdu dute bizia lanean ari zirela, CCOO sindikatuak adierazi duenez. Sindikatu honek segurutzat eman du heriotza horietarik gehien-gehienak eragotzi zitezkeela, legeak agindutako segurtasun neurriak beteko balira, baina momentuz hagitz eskasak dira, orokorrean, hartzen diren neurriak.

Orain arte arras gutti dira lege hoiek betetzen dituzten enpresak, eta horrek «argi adierazten du enpresariak interes gutxi dutela lan osasunaren kontuan» kexu azaldu zen sindikatuak.

EHIZA



Kontrapasa legeztatzearen alde pauso berriak eman dira

Espainiar senatuak Naturaren Kontserbazio Legearen erreforma bat onartu du berriki, udaberriko migrazio sasoian kontrapasan-ehizatzea debekatzen duena, baina «ezohiko egoeran eta bertze aterabide onik ez balego, txori kopuru ttikien ehi-zatzea» baimenduko lukeena.

Ezohikotasunaren izenean kontrapasa baimentzen duen erreforma honek kongresuaren oniritzia bertzerik ez du behar indarrean egoteko. Hainbat talde ekologistek neurri hauek gogorki salatu dituzte.

Baionako Merkataritza eta Industria Ganbaran egon nahi dute kooperatibistek

Joan den azaroaren 17an, astelehen, hauteskundeak egin dira Baionako Merkataritza eta Industria Ganbaran (MIG) eta lehenbiziko aldiz Ipar Euskal Herriko kooperatibistek osatutako zerrenda bat aurkeztu da bozketara, Langai.

Hauteskunde hoiene bidez MIGak gaur egun dituen 36 arduradunetatik 18 aldatuko dira, erdiak, eta kooperatibisten parean orain arte ganbaran jaun eta jabe izan diren Union Patronal eta Enpresa Ertain eta Tipien Konfederazio Orokorra aurkeztu da, Jean Marie Berckmans buru dutela.

Euskal departamentua osatzea

Patxi Noblia, Langai zerrendako kideak adierazi duenez, «25 urte dira kooperatiben inguruan lanean ari garela eta Ipar Euskal Herriko 2.000 lanpostu ordezkatzeko ditugu». Gaur egungo zuzendaritzan ingurune horren ordezkari ez dagoela ere azpimarratu du Nobliak, baina ganbaran oposizio lanak egitea beren asmoa ez dela aitzinduz, «osagarri gisa aritzea baizik».

Kooperatibistek Euskal departamentua ahal bait lehenen lortzeko xedea omen dute, eta horrekin bate-

ra, Hegoaldearekin harremanak sakontzeko, «han ere iturri ekonomiko garrantzitsua dagoelako, beti Pabera edo Bordelera begira egon gabe» dio Nobliak.

Aski jende ezaguna

Ipar Euskal herrian aski izen ezagunak dira Ekonomiaren eta Enpleguaren Zerbitzarien talde berria osatu dutenak. Industria sailean, batetik, hautagai hauexek ditugu: **Pantxo Bimboire**, Baionako Cazenave dendakoa; **Michel Etxebest**, Mauleko EBLkoa; **Fernand Perret**, Itsasuko Lorekikoa; **Ramuntxo Kanblong**, Copeleceko burua eta Garapen Kontseiluko lehendakaria; **Patxi Noblia**, Sokoakoa eta Jean **Thikoipe**, Copelectronik enpresako buru eta Herrikoa-ko lehendakari.

Komertzio sailean, berriz, **Henri Duhau** Senperekoa, **Kepa Etxandi** Baionakoa, **Daniele Labatut** Donibane-Lohizuneko, **Clement Solule** Baionakoa, eta **Jean Minhondo** Iri-sarrikokoa. Zerbitzuen sailean, azkenik, **Peio Berhokoirigoin** Arrangoitzekoa, **François Dunat** Donibane-Lohizuneko, **François Larraburu** Baionakoa, **François Mindurri** Miarriztekoa eta **Paul Fagoaga** saratarra.

PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIO

ZERRIKUMEA

* 20 Kilokoa



ZERRI GIZENA

* 95-100 kilo artean Pta./K.



Arraiozen saihesbidea egiteko proiektua berriki onartu dute

Heldu den urte hasieran abiatuko lirateke obrak, alkatearen ustetan

Arraiozko herria guruzten duen zatia izanen da seguruenik N-121-B errepidean gaur egun dagoen punturik beltzenetakoa.

Irailean onartutako proiektu hau gauzatzen denean, bai bide basterreko etxeek bai autoek aunitz eskertuko dute, saihesbidearekin tarte hortako trafikoa dexente arinduko baita.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria den José Ignacio Palaciosen bere sinaduraz ondotik, onartutzat eman da Arraiozko saihesbidearen proiektua. Gaur egunean etxe tartetik pasatzen den bidea desbideratu eta herria libratuko lukeen tra-

zatu berri baten-gatik ordezkatzeara da proiektu honen funtsa, eta horretarako 1,16 kilometroko saihesbidea egitea aurrikusi da.

Nafarroako Gobernuak 265 milioiko aurrekontua finkatu du, eta errepidearen trazatua aldatzeaz gain oraingo zubia dagoen tokitik goitixeago bertze zubi bat eginen dutela jakinarazi dute Gobernuak iturriek.

Egia erran, Arraiozko tarte horretan trafikoarekin arazo aunitz izandu da betidanik, eta aldaketak egiteko beharra nabarmena zen. Jose Antonio Bergara Arraiozko alkateak ere halaxe aitortu digu, «*beharra terriblea zegoen,*

herriko sarreran inbuntugisako bat sortzen baita beti, eta bertzetik, karratera basterreko etxe bat hiruzpalau aldiz eramanez kamioiek. Gainera zubia arrunt peligrrosoa dago eta bisibilidade faltagatik istripu aunitz izaten dira».

Proiektuaren aurka alegazio batzuk ere aurkeztu omen dituzte zenbait herritarrek, izan ere, bariante berriak lur eremu partikularrak zeharkatuko baititu. Gauzak horrela, lurjabeekin bilerak egiteko zitazioak egin dira, prezioetaz

eta bertzelako baldintzetaz informatu eta eztabaidatzeko.

Alkateak berak kalkulatu duenez, heldu den urte hasieran hasiko lirateke obrak, «urrian oraindik adjudikazioak ez zirelako eginak».

ARRAIOZKO SAIHESBIDEAREN PROIEKTUA



ARETZE GIZENA

● IDIKKOAK (Pla./Kg. kanal) 1.koa
● URRUXAK (Pla./Kg. kanal) 1.koa



ARETZE TTIKIAK

● NABARRAK
● MESTIZOAK



PERRETXXIKOAK



Kontu haundiz hartzeko jakia

Urtero urtero jaki arriskutsu hau dastatzearen ondorioz toxikazio kasuak atera ohi dira argitara. Aurtenean ere Iruñeko Bideko Ama Eritetxeak notizia ekarri du, irailaren 10ean 47 urteko emakume iruindar bat 4 *amanita phalloides* jan eta bertako larrialdi zentruan sartu behar izan zutela eta. Heriotza eragiteko hainako dosia irentsi bazuen ere, C.M.A.k suete haundi xamarra izan zuen, eta onik atera zen azkenean. Halere, jangarriak direla segurutzat jakin ezean perretxikorik ez jatea gomendatzen du Bideko Ama ospitaleak. Perretxikoak txarrak baldin badira zilar-paperaren gainean beltzunea uzten dutela, edota, bareek jaten duten alea ona dela dioten sasijakintzak baster-tzea ere aholkatu du Iruñeko ospitaleak.

Juainas PAUL

«Sorginkeria; gaitz guziendako estalkia... errepresio guziendako bidea» (III)

Garai zailek giroa gogortzen dutela diotenek behin eta berriro frogatzen gaitz guziendako dela: etsaiez inguratutako erruki gabeko salatariak bihurtu ohi gara. Esateko, egungo Bosnia, 1936ko gure ingurua... eta garai haietan...

Argi eta garbi dago XVI. mendeko azken hamarkadak eta XVII.eko hasierakoak zailak izan zirela. Zailak izan ziren, gainera, bizimodua ukitzen duten alor guztietan.

Gero Frantzia eta Espainia gisa

ezagutuko diren estatuak eratzen ari dira, mugak definitzen, "bertakoen" gaine-tik, noski, eta haien gogoak eta beharrak kontutan hartu gabe. Botereak, erregeak hain zuzen, urrutitik begiratzen du eta bertako bakar batzuek soilik dute harengana ailegatzeko posibilitatea. Urtubitarrak ditugu horietako batzuk, mugaren bi aldeko jauntxoak direlarik: Urtubi eta Altzateko jaunak... Eta Urtubiko andereak, amak, Espainiako eta "Hego Nafarroako" errege katolikoaren alde -Felipe II- espioitza lana betetzen duen garaian... semeak, Urtubi-Altzatekoak, Frantzia eta "Ipar Na-

farroako" Endrike IVaren alde ariko da, protestante izatetik katolikoa egiten den horren alde, alegia, honek ere bere ama zenaren desioen kontra.

Lapurdin eta Beran, "etxean" bertan, jaunak bertze arazo bati egin beharko dio aurre, gainera, beratar eta lapurtarrek jaun ohi "eskubideak" ukatzen baitituzte, guztiok "berdinak" garela dioen argelkeria hedetuz, bidenabar. Ez dira bakar-bakarririk ariko: Zugarramurdin eta Urdazubín monastegiko porta-

era, tratua, ordainak eta abar gaine-tik kendu nahi dituzte. Pleituluzeak irekiko dituzte, oraingo honetan baita "mugaren" bi aldeko ohi bote-re baten aurka, monastegiak han eta hemen go eremua kontrolatzen baitzuen, ere. Betiere des-

graziak bakarrik nola ez diren etortzen -zergatik ote?- fraideak eta apezak, garai berdintsuetan, estatuaren eta goi elizaren kontrola jasan beharko dute, behar bezalako portaera izan dezaten -1590ean, sinodoan, arren-kura agertuko diete-. Estatuak, euren aldetik, Frantziako eta Es-

painiako elizbarrutiak bereiztuko dituzte: Baztan-Bidasoak, lehen Baionarekin lotua zegoela, orain Iruñiarekin bat egin behar izanen du. Giro honek, berriro ere, bertze ondorioekin batera datorrela, egoeraren gordinkeria bermatu bertzerik ez du egiten. XVI. mende

bukaerarako, 90ko hamarkadan, kostaldeko izurriteak kanpotik eta hain behar beharrezkoak izaten ziren hornidurak, garia bereziki, ekartzea zeharo oztopatuko dute; estatuen mura tirabirak, gauza bera lortuko dute... eta burni esportazioak -Bortzirietan eta Urdazubín hain garrantzitsuak izanik- ikaraga-

ri zaildu ziren... aunitzek majo kostata lortuko dute mantentzea.

Burni esportazioak

-Bortzirietan eta

Urdazubín bain

garrantzitsuak

izanik-ikaragarri

zaildu ziren...

aunitzek majo

kostata lortuko

dute mantenua!



Jakin badakigu, 1609.ean

Amou eta Urtubiko jaunek,

Lapurdikoko jaunaren agindua jasoz,

Endrike IV.aren agindua jo


behar dutela. Honek sorginkeria

epaituko duten jakintsuak bidali

beharko zituela

iduritzen zaie, inguruak

sorginez josirik baitaude.



SABBAT BESTA

Deabrua gurtzeko egiten omen ziren Sabbath bestaren interpretazioetako bat dugu hemen:

A- Satan urre koloreko trono batean dago eserita Aker itxurarekin, bost adar ditu eta bosgarrena pixtua, Sabbath-eko kandela guzietan su emateko.

B- Sabbath-eko erregin koroatua eskuinean, eta moja bat ezkerrean.

C- Tronoaren aurrean, berak liluratunko haur bat aurkeztzen duen sorgina dago.

D- Hara batzarreko konbidatuak, bakoitzak deabru bat duela hurbil; jate honetan haratustelen haragiak, bat-taiatu gabeko haurren bihotzak, animala nazkagarrien eta kristauek erabiltzen ez dituzten haragiak bertzerik ez dira ikusten.

E- Jate horretan onartuak izan ez diren sorgin txikiak, haundiengana hurbiltzen ausartzen ez direla.

F- Tripa bete ondoren, dantzaren garaia dator; nazkagarrikeri horiekin indartu ondoren deabru bakoitzak mahaiaren aldamenean duena harturik, arbola madarikatu honen aurrean, batzuk erdialdera begira, besteak kanpoalderantz mugimendu zikin eta lazgarriekin egiten dute.

G- Hauek dira musika instrumentuak jotzen dituztenak, zeinen musika kontzertua adituz eta haien armoniara dantzatzen duten.

H- Azpikaldean, guztiak aurpegia kanpoalderantz duten emakume eta neska saldo bat dantzan ikusten ahal da.

I- Hara hemen sutan dagoen pertza pozoin guziak egiteko, gizakiak akatu eta gaixotzeko, aziendak galduarazteko, batak suge eta apoak kontzen ditu, besteak burua moztzen die, zatitu eta heltzera botatzen ditu.

J- Denborapasa hauek direla sorgin asko ailegatzeko dira Sabbath-era erratzen gainean, aker gainean eta Satan-i eskeini behar dizkieten haurrak lagun. Sabbath-etik alde egiten duten bertze batzuk, itsaso alderantz ala urutiago doaz ekaitzak-eta sortzera.

L- Emakume haundi eta damak ditugu hauek; hala nola bertze jende aberats eta boteretsu, Sabbath-ean egin behar dena erabakitzen dutenak; aparte dira eta emakumeak moztaratuak, beti ere ezezagun eta babestuak izateko.

M- Putzuaren inguruan haurrak, makilekin eta ospakizunetik urrun, apo saldoak zaintzen dituzte, ohiz Sabbath-era eramaten direnak.

Hauez gain, gauza aunitz gehiago dira figura honen dimentsio txikiak azaltzen uzten ez dituenak eta arras ongi ulertuko direnak bigarren liburuko 4. atalean dagoen Sabbatheko diskurtsoan.

«Tableau de l'incostance...» Paris, 1612. Pierre de Lancre

na! Urte batzuk barru Ameri-
etatik ekarritako artoak nola
lo hala konponduko duena,
rain, 1609. urtean...

erriarrek, batzuek beste, sor-
ingoan sinisten dute eta XVI.
mendeko mobidak sinismen ho-
indartu dute. Bideratu ere!

525 ez da hain urruti. Bakarren
atek ondatzen ditu aziendak eta
ztak, eguraldi eta haurrak... sor-
inak?... gaitzak, behinpin, ez
ira berez etortzen!

auntxoek gauza bera pentsatu-
o dute?... ez dakit, ba!

akin badakigu, 1609. ean Amou
ta Urtubiko jaunek, Lapurdiko
unuen agindua jasoz, Endrike
W. arengana jo behar dutela. Ho-
ek sorginkeria epaituko duten
akintsoak bidali beharko zitue-
n iduritzen zaie, inguruak josi-
k baitaude. Pierre de Lancre-

k atea irekiak ditu. Euskal Ja-
torriko bordeletar honek, ira-
kurria izanik, Europan Sabbath
izenarekin ezagutzen den sor-
gin-besta, Deabruaren kultoa
eta abarrekoak topatzen saia-
tuko da... eta saiatu ezkeru...!

Hasteko...

Lapurdi hizkuntz arraro bat
—susmagarria— hitzegiten duen
jende populaturik dago; La-
purtarrak ez omen dira ez fran-
tsesak, ez espainolak, eta itsa-
soa maite dute eta itsasotik da-
tozenezan dirua gastatzeko jo-
era dute, besta eta builetan.

Gainera...

Indietara eta Japoniara bidali-
tako misiolariak hango deabruak
kanporatu zituzte eta Bordele-
ra etorritako ingeles eta esko-
ziar askok Frantzia aldera he-

gaka zetoze ikusi omen di-
tuzte.

Itaunketa sistemak egiten dute
falta dena. Sorginez josirik da-
go Lapurdi. Deabrua ohoratzen

dute eta hemen ikus daitekeen
Sabbat bestak ospatzen dituzte.

(Jarraituko du)

FRUTONDOAK



Sagardoa egiteko sagarretan ere kalte haundiak sor ditzake bakterio-suak.

BARATZE
XOKOA

GOMENDIOAK

Osin-ongarria nola egin:

Landare salden artean ezaguna eta zuk zerorrek etxean egin dezakezuna da baratze osoinekin egindako likido fermentatua.

Merkea izateaz gain, zure landareei elikagai egoki eta kalitate onekoa emanen diezu horrela. Hona hemen prozesua urratsez-urrats:

1- Bildu osinak (kasu!) eta ongi xehetu ondokik azpil edo ontzi haundi batean batean idortzen paratu. Xehetu ahala bolumenean aunitz ttikitzen direla kontutan hartzen badugu, kantitate haundi xamar bat biltzea komeni zaigu. Kilo inguru osin badugu, 10 litro ur bota beharko dugu gero (hobe euri ura bada, edo eguzkitan denbora dextente daramana, bertzenaz).

2- Ongi nahasi behar dira ura eta osinak, hauek guztiak ongi estaliak gelditu direla segurtatuz. Plastikozko estalki batez edo ongi ixten duen tapa batez itxi egin behar da ondoren, eta zenbait astetan horrela utzi beharko dugu, egurrezko kuxtare batekin maiz eraginez.

3- Hilarbetea pasa eta nahasketa usteltze prozesuan dagoenean, kubo batean iragazi behar da. Ongarri hori 10 bat aldiz disolbatu behar duzu urarekin. Azkenik, sobran dauden osinak konpost egiteko erabil ditzakezu.

Bakterio-sua gure zonaldean

Gaitz honek sagarrei egiten die kalte gehien

Aurtengoan "bisi-ta" berezi bat izan dugu gure inguruan, gazteleraz "fuego bakteriano" deitzen den gaitza, hain zuzen ere.

Gaitz hau 1957. urtean agertu zen lehen aldiz Europan eta hortik goiti hedatuz joan da kontinente osoan zehar, gure eskualdera ailegatu arte.

Ze landare izorratzen du?

Batez ere sagarrak harrapatzen ditu,

edozein motatakoak izanda ere, baita sagardoa egiteko erabiltzen direnak. Uda-reak, mizpirak, hosto zurri eta elorri xuria ere bai. Bat edo beste gehiago ere bai baina ez dira horren ezagunak.

Kalteak

Gaitz honek kalte haundiak eragiten ditu, eta kalte haundiena zuhaitza edo planta beraren ihar-tzea izaten da.

Produktibitatea ere jausten du, zeren aunitzetan loreetan kokuatu ohi da. Plantak

Plantak hosto ximur, erreak

baleude bezala gelditzen dira.

Gaitza gelditzeko ezagutzen den modu bakarra "prebentzioa" da.

hosto ximur, erreak baleude bezala gelditzen dira orduan. Gaitza gelditzeko ezagutzen den modu bakarra "preben-

tzioa" da. Nonbait somatzen bada dena moztu eta erre egin beharko da, ondokik

erabilitako erre-mintak ongi garbituz. Gaitza somatu ezkerro, hurrengo telefono

hauetara deitu:

10 67 15

82 55 55

42 79 88

● Juan Cruz IRIARTE ●

20 gaztetatik batek

Osasun mentalaren gainean egin beharreko lan aunitz dago gaur egun oraindik. Noiz behinka jasotzen ditugun datuak arrazazgarriak izanik ere, gizarteak gaitz honi eta gaixoei bizkara ematen segitzen duela iduri du. Eritasun hau izkutatzeke joera haundia dago bai gaixoa eta bai bere familiaren alde-tik, eta horrela, eskizofrenia duten 3 pertsonatik 2k ez dute tratamendu egokirik hartzen.

Gaixotasun mentalak aurrikusteko gazte edo haurren jokabideari erreparatu behar

zaio, zenbait aldiz zofreniaren seinaleak taitezke: Norma dituen gauzeki gaitzea, jan eta ohituren aldaketak eta lagunetatik urakardadea bilatzen aurrean jarraitzea izan daitezkeak bertze, gaitz ratuko dituen sin-tzuk, eta horretaz-tzaz edo bere bu-egiteaz mintzatuko edota aditzen di-arraroretaz. Pertsona gazteet

EGUTEGIA Azaroa-hilbeltza

BARATZEAN

1.- Erein

- Baratxuriak, tipulak (buruak), espinakak, babak, ilar-berdeak...

2.- Landatu

- Alkatxofa landareak, letxuak, azak, porruak...

LORATEGIAN

1.- Landatu

- Pentsamientook, margaritak, alhelikak, zuhaixkak, arbolak...

2.- Erein

- Bulboak: Nartzi-soak, tulipanak, irisak...

MARUBIAK PLASTIKO BATEN AZPIAN

Zonalde geografiko desberdinen arabera da marubia landatu beharreko sasoia, eta lurralde frexko eta epeletan, adibidez, udazkenaren hasierako egunak dira egokienak.

Beranduago egin nahi baduzu, orain gauden sasoiaren, errate batera, udaberri aldera loreak kimatu beharko dituzu, landarea fruitua eman aitzinetik osa dadin. Erabiltzen diren aleak lurzoru frexkoetan para itzazu, kontutan harturik azken 3 urteetan lur hortan marrubirik ez dela izan. Segidan azalduko dizugu nola landatu marrubiak, plastiko batez estalita.



1-Erdikaldean lurra pilatu eta plastiko batez estali ttantakak.



2-Plastikoaren bi aldeetan lurra zulatatu eta plastikoak segurtatu, haizeak eraman ez dezan.



3-Plastikoangurutzetako formako zuloak egin eta bertan marrubi landareak sartu.



4-Komenigarria da marrubi lerroa altxatua egotea, euria egitean ura kanpora joan dadin.

kizofrenia du

ki-
bai-
ko
sa
ko
de
eta
za-
orra
er-
ale-
pa-
rio-
ste
so,
ots
ota-

suna eragiten duten iturrien artean langabezia, soldadutza egitera derrigorrez joan beharra, amodioan edota ikasketetan izandako porrotak gailentzen dira, baina bertze zenbait kausa ere ez dute baztertzen adituek. Horrelako gaixotasun batek ez dio erari soilik kalte egiten, bere inguruan dituenek ere ondoriak jasaten dituzte eta. Lehen aipatu dugun bezala gaixotasuna izkutatzen saiatzen den kasuetan, arazoa larriago bihurtzea bertzetik ez da lortzen.



DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CARREFOUR NIREA © 210018

Baztan © 580561 Bortziriak-Malerreka © 451654 Leitza © 510009



ABELTZANTZA

- **Proiektu edo inbertsiorik egiten duen edozein pertsona fisiko edo juidikorendako.** Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 90. zenbakian argitaratu zen (97/07/28). Abel-esplotazioen ingurugiroaren gaineko eragina ttikitu, aurrikusi eta zuzentzera bideratu inbertsioak lagunduko dira. Muga egunik ez da ageri.
- **Putreek azindari sortutako kalte-galeren ordainketa.** Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 71. zenbakian argitaratu zen (97/06/18). Epea: Erasoa gertatu eta 15 egunetara gehienez ere.



HEZKUNTZA ETA PRESTAKETA

- **Helduen Euskara ikasketak bultzatzen dituzten entitate pribatuendako.** Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 132. zenbakian argitaratu zen (97/11/03). Helduen Euskara ikasketak bultzatzen dituzten entitateak (gaueskola eta euskaltegi pribatuak) laguntzeko dirulaguntza. Muga eguna: 1997ko abenduaren 4a.



ONDARE HISTORIKOA

- **Nafarroako ondare historiko eta artistikoaren parte diren higiezinaren egokitze, sendotze, mantentze eta zaharberritzeak.** Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 130. zenbakian argitaratu zen (97/10/29). Muga eguna: 1997ko abenduaren 31.



NATURA

- **Habitat naturalak.** DOCEren 97ko 9aren 18ko CE282an argitaratua. *Life-Natura*-lezak interes orokorreko baso fauna eta flora zainketara dedikatzen direnendako dirulaguntzak bideratzen ditu. Muga eguna: 1997ko abenduaren 31a.



OSASUNA

- **HIESaren prebentzioa.** DOCEren 1997ko uztailaren 25eko C226ean argitaratua. HIES eta kutsakorrek diren bertze eritasunen prebentzioari bideratuak 49,6 milioi ecu daude, eta ondoko arloak hartuko dira kontuan: eritasun kutsakorren behaketa eta kontrola, kutsatzearen eta diskriminazioaren aurkako borroka, informazioa, hezkuntza eta formakuntza eta HIESaren birusa duten pertsonendako laguntza. Banatzailea: Europako Batzordea. 'HIES bertze eritasun kutsakorrek' programa. Muga: 1998ko martxoaren 15a.



KULTURA

- **Arte eta kultur ekitaldiendako laguntza.** 97ko abuztuaren 19ko C253an argitaratua. Calidoscopio programa europar herrietako bizitza kulturala eta bertako kulturaren zabaltze eta ezagutzea bultzatzera bideratua da. Helburuak: Europako Estatuetak artistek elkarlanean egindako sormen artistikoko ekitaldiak bultzatzea. Izaera berritzaileko kultur proiektuak laguntzea eta europar kulturen elkar ezagutzea sustatzea. Muga eguna: 1997ko abenduaren 1a.
- **Eskualdeetako hizkuntza eta kultur minoritarioendako.** DOCEren 97ko 6aren 12ko C 178an argitaratua. Ondoko arloetan gauzatuko diren proiektuek jasoko dute dirulaguntza: erakusketa eta formakuntza, normalkuntza linguistikorako ekintzak, hizkuntzaren erabiltzea komunikabideen aldetik, informazio eta dokumentazio sareak eta mintegiak. Muga eguna: 1998ko apirilaren 1a, irailaren 15ean hasten diren proiektuendako.

*** Dirulaguntza hauen edo bertzelakoen gaineko informazio gehiago eskatzeko NIREAra jo daiteke.

AZKEN ORRIALDEKOAK



Arg. Goiko

43 herritako alkateak Saran bildu ziren Lore Jokoak oroitzu

Antoine D'Abbadie zenaren mendeburua bete den honetan, garai batean Lore Jokoak ospatu ziren 43 herrietako auzapezak Saran elkartu ziren, jakintsu haren ohoretan. Meza eta leihotik leihorat aritu ziren bertsolariak aditu, eta Jean Aniotzbehere alkate saratarraren ongi-etorria jaso zuten zazpi probintziatik etorritako hautetsiek. Baita argazkirako bildu ere.



Lekunberriko hiltegia

Leitza, Betelu eta Larraungo alkate eta harakinen arrenkurei kasurik egin gabe, Lekunberriko hiltegiako lurak Olazti eraikuntza enpresari 18 milioi pezetaren truke saldu dizkio Lekunberriko udalak, eta beraz, gaur egun inguruetako hiltegi bakarra denak abenduaren 31n itxiko ditu betirako bere ateak. Beste hiltegi berri bat ezartze aldera zenbait gestio hasiak ditu Lekunberriko alkateak.



Kooperatiba berria sortu da, Seindea

Cederna-Garalur erakundeak garai batean emakumeei begira martxan paratu zituen lan formazio planak bere lehen emaitzak eman ditu dagoeneko. Berriki, izan ere, ikastaroetan parte hartu zuten 17 emakumeren artean Seindea izeneko kooperatiba eratu dute, haur, adindu, eritu nahiz ezinduei etxeko-etxeko atentzio pertsonala eskaintzeko asmoz.

«Inork ez ditu kontrolatzen hemengo ehiztariak, eta nahi dutena egin dezakete»

Hemen Etxalarren, ze lan egitea egokitu zaizue?

Gure lana usoak eta zikoinak bezalako beste zenbait espezie behatzea da, kontrolatu eta zenbatu, haien migrazio mugimenduak ulertu ahal izateko. Horretarako prismatikoak eta begiratzeko aparatu hauek ditugu. Katalexuek 10 aldiz haundiagotzen dute irudia, eta bertze aparatu hauek, berriz, 32 aldiz.


Hegaztien populazioa 20 urtetik behin kalkulatu ohi da, urte batetik bestera eguraldiaren edo beste faktore batzuen arabera oso aldakorra izaten baita.

Zein da usoen migrazio mugimendua?

Hemen Etxalarren ikusten ditugun usoak Eskandinavia aldetik datoz eta Espainiako hegoaldera joaten dira. Extremaduran pasatzen dute negua, klima epelean.

Usoen kasuan, migratzeko talde haunditan juntatzen badira ere, kabia egiteko bikoteka elkartu ohi dira. Bainan umeak koxkortu bezain azkar, taldeetan biltzen dira bidaia luze hori egiteko. Pirinioetara ailegatzen direnean uso multzoak haundiagoak bihurtzen dira, geldialdia egiten baitute mendikatearen beheetikaldian, eguraldi onaren esperotan. Horregatik, hemen Etxalarren 1.000 uso baino gehiagoko taldeak ikusi daitezke egun ederra delarik.

Eta, nola orientatzen dira



Olivier MAIGRE

Bordelekoa, 22 urte.

BERAK HAUTATU ZITUEN IKASKETEKIN DEUS IKUSTEKO-RIK EZ BADU ERE -KOMERTZIOA ESTUDIATU ZUEN- UDAZKENEAN EGUN OSO-OSOAK EMATEN DITU TXORIEI BEHA, ORGANBIDEXKA ERAKUNDEKO BOLUNTARIO GISA. LIZARIETAKO LEPOAN HARRAPATU DUGU, ZERUA ILUNEGI EGONIK ERE, BERE TOKIAN ETA ERNE.

bidaia luze hori egiteko?

Teoria aunitz dago. Nere ustez, eguzkia, itsasoa eta buruan duten magnetismoari esker gidatzen dira usoak beti hegoalderantz. Gauez bidaiatzen duten txoriek, ordea, izarren bidez bilatzen dute orientazioa. Ipar-izarra bizkarrean edukita, badakite beti hegoalderantz doazila.

Arazorik izan duzue hemengo ehiztariekin?

Bueno, ehiztariak beti etortzen zaizkigu uso populazioa oso ongi mantentzen dela erranez, eta guk guttiago zenbatzen baditugu, gauez, edo itsasotik, edo oso altu pasatzen direlako dela.

Usoak gauez pasatzen diren hori kontu hutsa al da orduan?

Ez da egia usoak gauez pasatzen direnik. Eskandi-

navia aldean radarrak paratu zituzten hori jakiteko, eta ezetz frogatu zen. Birigarroak eta holakoak bai, baina usoak ez, ezta ilargi beteak dagoenean ere.

Orduan zergatik erraten dute hori?

Ez dutelako onartu nahi espezie horren murrizketaren errudun direnik. Hala ere, uso populazioa murriztea hein haundi batean ehiztarien kulpak da, hemen ezezik beste leku askotan ehizatzen baitira...

Ehizarako dauden arauak errespetzen dira?

Gu hemen gaudenean hiltzea debekatua dagoen txoriei tiro egiten diete, kalandriei-eta, beraz, pentsa gu ez gaudenean nola ibiltzen diren. Egia erran inork ez ditu kontrolatzen hemengo ehiztariak, nahi dutena egin dezakete.

Lurra


Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria

Argitaratzailea: Lurra Kultur Elkartea • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA Ate honetan parte hartu dute: EHNE Nafarroako teknikoei, Juan Cruz Iriartei, Juainas Paulei, Asier Gogorzak eta beste zenbaitzuei. Maketazioa eta Banaketa: ttipi-rtapa Inprenta: Graficas Ona Tirada: 6.400



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Nor garen eta non gauden?



Leitzako Gizarte Zerbitzuko langileak

NOR JOAN DAITEKE GIZARTE ZERBITZUETARA?

HAUR ETA GAZTEAK

Zer egin tratu txarren aurrean?
Nola adoptatu ume bat?

EZINDU ETA ELBARRITUAK

Nor jo errekonozimendua egiteko? Non
daude erresidentziak? Nola lortu kotxe-
aren gastuetarako diru-laguntzak?

ADINTUAK

Laguntzarik ote da gurasoak etxean
zaintzeko? Eta erresidentzian sartze-
ko gestioak? Eta pentsiorik gabe ba-
nago, zer?

EMAKUMEAK

Nola bildu, nola elkarteak sortu; zer
egin ikastaroak eta hitzaldiak antolatze-
ko? Nor jo tratu txarrak sufritzen ba-
ditut?

FAMILIA

Langabezia, diru gutxi, gastu asko... zer
egin daiteke?



Lanbideetarako telefonoa

Alarma aparatu ttiki bat da, erabiltzaileek (beren burua zaintzeko gauza ez di-
pertsonak, ezinduek, etab...) denbora guzian aldean eraman beharrekoa. Larrialdi-
uan botoi bat zanpatu eta SOS NAFARROAko unitate zentralarekin kontaktuan ja-
ro zaitu, telefonoa hartu beharrik izan gabe, honek daraman altabozari esker.
Zerbitzu berri honen bidez segurtasuna eta babesa izanen dituzu, izan ere, era-
zaillearen egoeraz galdetzeko noizbehinkako deiak eginen baitira SOS NAFARROAtik.

*Pentsia Eskazazu
66.000 pta- informazio
tik beheitikoa gehiago zu-
dutenentzako herriko
debaldeko Gizarte
zerbitzua da. Zerbitzuan.*

ESKEINTZEN DITUGUN BESTE ZERBITZUAK

DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIO PROGRAMA



Itziar EGUZKIAGIRRE
Etxalarko Giz. Langilea

Drugomenpeko-
tasunaren arloan gi-
zarte zerbitzu ko-
munitarioek dituz-
ten funtzioak era
askotakook badira

ere, ekintza gehienak prebentziora bide-
ratuak daude.

Laburbilduz, drogomenpekotasunaren pre-
bentzioak norberaren eta gizatalde oso-
aren ikaste prozesu bat suposatzen du,
hau da, drogekin elkarbizitzaren ikastea.
Zer esanik ez, betidanik, lehen orain eta
ziur gero ere drogak izanen direla, be-
raz drogomenpekotasunik gabe bizitze-
ko hezkuntza da.

Drugomenpekotasunaren prebentzioa
egunez egun garatu behar den bizitzako
jarrera, balorea eta ohitura osotasunaren
aldeko lan bezala ikusi behar da.

Illo honi lotuta Bortzietako Gizarte
Zerbitzuko Prebentzio Programak ekin-
tza desberdinak burutu ditu:

- Informazio, orientazio eta aholkularitza.
- Prebentzio tailerrak gazte eta nera-
beei zuzendutak.
- Gazte Kontseiluak garatzen dituzten
kanpainak zonaldean ezagutarazi.
- Beste elkarteekin batera ekimenak anto-
latuz, gazteak parte hartzera bultzatu-
tuz.
- Gazteen eta nerabeen aisialdia eta kont-
sumoari buruzko informazioa jasotzeko
eztabaida taldeak eta elkarriketak.
- Guraso eskolak bultzatu, eratu eta di-
namizatu (BERAn) zenbait gai jorratuz.
- Emakumeentzako ikastaroak progra-
matu eta antolatu.
- Zailtasunak dituzten familiekin lan zu-
zeta egin.
- Drogekin arazoak dituzten pertsonen-
gan hurbilketa lana, orientazioa...
- Lehendabiziko urratsak eman badira ere,
esparri berriak jorratu behar dira, Udalen
inplikazioa, kultur-kirol hezkuntza...

OKILE, EZINDU PSIKIKOENTZAT ZENTRUA



Pablo FEO
Leitzako Hezitzailea

Zentru hau,
1992ko azaroan
zabandu zen, zo-
nalde honetako
ezinduek psikikoek gi-
sa honetako zen-
tru baten premia zutela ikusi ondoren.

Lehenago, 1989 urterarte, Sarrió Papel
fabrikak bultzatu eta Amazabal Patrona-
toak sortutako zentru bat aritu zen ar-
lo honetan lanean. 1989 urtean Patronato
hori desegin zen, ondorioz, ezinduek gehie-
nak etxera itzuli ziren, beste inongo
zentruetara joan gabe.

Zentru honen sorrerarekin, zonaldeko
ezinduek psikikoek arazoari irtenbidea bi-
latu nahi zaila eta beraiek dituzten ahal-
menak garatu.

Gaur egun 7 ezinduek etortzen dira zen-
tru honetara, denak zonalde honeta-
koak eta honako eskulanak burutzen
dituzte: gurutze puntua, paper-posta-
rekin egindako maskarak, paper-pas-
ta bera etab...

Duten ordutegia, goizeko 9etatik eguer-
diko 1etara eta arratsaldeko 2,30etatik
4,35ak artekoa da.

Asteazkenetan, Tolosako igerilekura
joaten dira, igerian ibiltzen ikasten du-
telarik.

Zentru honetan lanean ari den monito-
reak burutu beharreko lanak eta eki-
taldiak programatzen ditu, eta baita
ezinduek bakoitzak eraman behar duen
programa berezia talatu ere, hauen pre-
miak kontuan hartu ondoren.

Zentrua Udolarena da eta Nafarroako
Gizarte Ongizate Institutotik diru-la-
guntza jasotzen du.

1996. urtean Nafarroako Gobernutik
jasotako subentzioa 1.572.383 ptakoa
izan zen, eta Leitzako Udaletxeak eman-
dako diru-laguntza berriz, 1.771.266
ptakoa izan zen.

BABESTUTAKO ENPLEGU SOZIALA



Ainhoa ARBURUA
Berako Gizarte Langilea

Babestutako Enplegu Soziala gizarte zerbitzu
arloan, kontraprestazio moduan antolatua da-
go, hau da, proiektuan dagoen jendeari diru-la-
guntza bat ematen zaio gizarteari emaniko zer-
bitzu batzuren truke.

Proiektu honen onuradunak oinarritzko errenta

hartzailleak eta gizarteratze programan daudenak dira. Egitasmoa,
berriz, herri bakoitzeko eskaerari egokitua dago, baina orokorrean
egiten dituzten lanak berdintsuak izan ohi dira; herriko karrikak
garbitu eta egoitza publikoak (kultur etxea, musika eskola, frontoi...) mantendu.

Bortz ordu sartzen dituzte egunean (astelehenetik ostiralera) eta
horren barnean formaziorako ikastaroak ematen dira (asteazkenetan).
Gizarte hezitzaileek jarraipen lana daukagu, alde batetik lanean
sortzen ahal diren arazoak konpondu eta bestetik familiaren behar-
rak aztertu eta interbentzio berezia egokitu.

Azken helburua langile kolektibo hau gizartean bere kabuz moldatu
ahal izateko prestatzea da, duten autoestima indartuz eta beraien
trebetasunez jobetu direnean, lanbidea bilatzeko prestatzea.

Malerrekako Gizarte Langileak



onena ko Ferriak

ko eta baserritarrekin kontu-
kontari aritzeko aprobetxatzen
da goiza. Baina azienda ez da
Feria egunak eskaintzen duen
ikuskitun bakarra.

Aizkora, bertsoak, pilota...

Plaza inguruan aziendak
dauden bitartean, plazaren bar-
nean Donato Larretxea eta
Mikel Mindegia aizkolariak
aritutako dira, 11,30etan. Ordu-
bete beranduago Xabier
Euskitze, Joxe Agirre eta
Imanol Lazkano bertsolarien
saioa hasiko da. Ondotik,
azienda lehiaketaren sariak ba-
natutako dira. Goiz parteko eki-
taldiak bazkari eder batekin
akautzen dira normalean.
Arratsaldean, berriz, 5,30eta-



tik aitzinera profesionalen ar-
teko pilota partiduak jokatu-
ko dira frontoian. Arrats par-
tean, 7,30etatik 9,30etara,
Plaza Zaharren ALAITZ eta
MAIDER trikitixa taldeare-
kin dantzatzeko aukera izanen
da. Aipatzekoa da, eraberean,

egunean zehar artisau lanen
erakusketa izanen dela Plazan.
Honeraino Herriko Etxeak an-
tolatzen dituen ekitaldiak.
Honetaz gain, San Fermin
Jubilatu Elkarteak bere egoi-
tzan afaria egiteko ere pro-
bextuko du eguna. ■

Behiak, aretzeak, zaldiak,
behorrak, pottokak...
Azienda klase ugari
ikusteko aukera izanen da
Lesakako Feria Egunean.

Argazkiak: TELLETXEA

PATXI ZAMORANO

- Bernizatze-kabina
- Pintura lanak orokorrean

Leitzako bidea • 450734 • 989 57 54 01 • DONEZTEBE



**ETXEBERRIA
OSTUA**

Plaza Zaharra • Lesaka
637700



ZALDO
OSTUA

A. T. O.



OTXANGO S.L.

GARRAIO AGENTZIA

**ESTATU BARNEKO
eta ESTATU ARTEKO
GARRAIOAK**

- Antoiu 23 • Behea
- 31770 LESAKA
- Tfnoa: (948) 627644
- Faxe: (948) 627656



**Lurrindenda
Estetika**

Behoko Plaza 8
637791
LESAKA

LESAKA
AUTOESKOLA



Albistur 39 - H Tel.: 63 78 70

Ongi pasa ferietan!

BARNEK Sukalde mobleen Fabrika

Guk fabrikatzen dugu Zuzeneko Salmenta

Tel eta Faxe: (948) 63 70 96
Erakusketa: Otsango auzoa, Tomasenekoborda
LESAKA

HOTEL ** BEREAU



BEREAU
Jatetxea • Hotela
Feria onak pasal
Lesakako bidegurutzean
© 62 75 09
LESAKA



ETXALARKO BENTA

Iruña-Irun errepidea, 70 km
Etxalar (Nafarroa)
Tel.: (948) 63 50 00
Faxe: (948) 63 52 63

- 40 logela oso (bainua eta TB)
- 250 lagunendako banketa jangela
- Jangela pribatua
- Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak
- Ostatua



 **ALMACENES ETXANIZ, S.A.**
Lesakako Iturria Anaiak



- Bainuak
- Sukalde mobleak
- Iturgintza
- Kalefakzioak (Propano, gasoila)

Zure bainua edo sukalde berria, edo zaharberritzea, kalitatezko materialekin eta modu guzietako aurrekontuekin

ERAKUSKETA
Juan Arana, 1

Tínoa. (943) 61 17 67 IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

MALERREKA

Etxegia-Boubeta garaile nesken pala txapelketan

Finalean 35-18 irabazi zieten Lizardi-Tabernari

TXEMA ALDABE

Mirari Etxegia goizuetarrak eta Altzako Txus Boubetak osatutako bikoteak irabazi du Doneztebeko Erreka elkartek hirugarren urtez antolatutako Baztan-Bidasoako emakumezkoen pala txapelketa. Finalean aisa irabazi zieten (35-18) lehen bi edizioetan txapeldun suertatu ziren Beatriz Lizardi igantziarra eta

Begoña Taberna lesakarrari. Bi bikoteak partidurik galdu gabe ailegatu ziren finalera, baina Bortzirietakoak urduri xamar aritu ziren eta ez zuten beraien kategoriora erakusterik izan.

Hirugarren eta lauugarren posturako norgehiagoka borrokatuan Edurne Argain eta Maite Redondok (azken hau Garbiñe Elizaintzinen ordez aritu zen) 35-32 irabazi zieten Estitxu



Txapelketa honetan parte hartu duten pilotariak. Erdian, txuriz jantziak, aurtengo finalistak.

Pierola eta Goiatz Manzidori (Maritxu Alzugarairen ordezkoa). Denetara hamaka bikote aritu dira txapelketan.

Erreka elkartek txapelketa hau posible egin duten erakunde, enpre-

sa eta komertzioei eskerrak eman nahi die.

Aurtizko I. eskuz banakako txapelketa

Aukera ederra dute federatu ez diren pilota-

zaleek txapelketa berri batean aritzeko. Partiduak larunbat edo igande goizetan jokatu dira Aurtizko frontoi titikian. Aurtizko Ostatuan izena eman behar da hilaren 26a baino lehen.



Talleres Eder

Citröen agente ofizial berria

Donezteben

Zatoz CITROËN XSARA BERRIA ezagutzera gure erakusketara. Eta baita turismo eta auto industrialen gama osoa ere.

Citröen-ek Agente Ofizial berria izendatu du Donezteben.

Etiket hurbil Citroën gama osoa ikusgai edukitzeko, eta aldeberean, abantaila eta zerbitzu guztiak aprobetxatzeko:

- Grua egun osoan.
- Mekanika-elektritzitatea, txapa-pintura edozein autorentzat.
- Autoak errentan, 1.275 pta/eguneko.
- Eurocación ibilgailuak guttienez urte bateko garantiarekin.

Gure garantiarekin

Cirmauto

Zaragoza Etorb.
Tfnoa.: 24 93 00. Iruñea



GOIZUETA

'Xalto' Sariaren edizio berri bat abenduaren 5ean burutuko da

Nafarroako sei bertsolari gazte hoberenak lehiatuko dira Umore Ona elkartean

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako sei bertsolari gazte egonen dira lehian hurrengo abenduaren 5ean, ostirala, gaueko 11etatik aurrera Umore Ona elkartean, «Xalto» Sariaren laugarren edizioa eskuratzeko izanen dutelarik guziek helburu. Aurretik Lesaka eta Atarrabian kanporaketak eginen dituzte izena ematen duten guziekin, eta sei hoberenak Goizuetako finalean kantatzeko aukera edukiko dute. Gorputzari behar duena emandakoan bertsolarien errendimenduak gora egiten duela badakite antolatzaileek. Horregatik, gaueko 9,30etan afari herrikoia izanen da elkartean, bertsozale guztiei bertara joateko aukera eskainiz. Txartelak Urru-



Urrezko Ezteiak

Pauleneko Gabino Lekuonak eta Maritxu Salaberriak urriaren 31n bete zituzten 50 urte elkarrekin, Urrezko Ezteiak alegia. Ereñozun entzundako mezarekin eta Fagolaga jatetxeko bazkariarekin ederki asko ospatu zuten egun berezi hau Gabinok, Maritxuk eta beraien sendiak.



tinea tabernan daude salgai 1.500 pezetatan. Ez da asko menua kontutan hartuz gero, entsalada rusa, zopa, solomilloa, postrea eta kafe konpletoa, hain zuzen ere. Txartelak eskuratzeko epea San Fran-

tzisko egunean bukatuko da.

Andres Narbarte «Xalto»ren omenez gauza gehiago ere antolatzen dira herrian garitsu honetan. Esate baterako, hil honen 27an, bertso festa ederra iza-

nen da eskoletan urtero-urtero bezala, Hernaniko eta herriko bertso eskolako ikasleek bapateko saioa eskainiko dutelarik. Honetaz gain, eskolako haurrei mugatua dagoen bertso-pa-per lehiaketa bat ere

martxan da dagoeneko.

❖ **Ximon eta Txamok** osatutako bikotea suertatu da garaile Egin egunkariak urtero antolatzen duen mus txapelketan. Umore Onak babestu zuen herriko kanporaketa hau.

ARESO

Nafarroako lehen txapela jantzi du sokatira taldeak

680 kilokoa eskuratu zuten

JUANA M^a SAIZAR

Aresoko sokatira taldeak bere maila mantendu du beste urte batez. Arraiozen jokatu zen 680 kiloko jardunaldian, lehen txapela jantzi zuen alajaina. Aresoarren helburua Euskal Herriko txapelketa prestatzea da, bai-

na esan dutenez, Nafarroan ahal duten domina guziak irabaziz. Aurten Larraun, Etxauriko Harana eta Sakanak ez dute parte hartuko eta horrek ahuldu egin du pittin bat norgehiagoka.

Liburutegia

Eskolako liburutegia irekiko da astelehene-

tik ostegunera, 5etatik 7etara. Denentzat irekia egonen da. Guraso Elkarteak antolatu du ekin-tza osagarri bezala eta ordutegi honetatik aparte erabili behar duenak eskaria egin beharko du.

Egin txapelketa

Aurten ere, Pake-Toki elkartean Egin mus



Lehen txapela aresoarrentzat

Egunkaria

txapelketa antolatu dute eta 7 bikotek parte hartu dute. Finalean Jose Manuel Olazabal eta Ignacio Bengoetxea suertatu ziren garaile, Kontxi Marzol eta Patxi Zubilagari irabazi ondotik.

❖ **HBko Mahai Nazionalaren** epaiketaren aurkairitzi publikoari eta nazioarteko komunitateari igorritako agiria sinatu dute 50 aresoarrek. Bake proposamen bat epaitzea salatu dute.

Zonaldeko Zahar Etxea ez da Leitzan eginen

Nafarroako Gobernua Betelun egitearen alde agertu da

JOSEBA AZPIROZ

Gizarte Ongizate Departamentukoek esan dute Beteluko Zahar Etxearen proiektua dela aurkeztutakoetatik hoberena, merkeena delako eta araudi arkitektonikoak betetzen dituelako eta beraz, dirulaguntzak udal horri emanen dizkiotela. Gainera, osasunerako mesedegarriak diren ur medizinalak bertan izatea ere kontutan hartu dute. Betelu ez ezik, Larraunek eta Leitzak ere aurkeztu zituzten beraien proiektuak. Lau arrazoi ematen dituzte Leitzak aurkeztutako proposamena ez onartzeko eta lauak teknikoak dira: Etxea handiegia dela, plaza gehiegi dituela eskualdeko beharretarako (72 plaza ditu Leitzakoak eta Betelukoak berriz, 9 gutxiago), etab... Honen inguruan esan behar da proiektua eta bideragarritasun-txostena egin duen enpresak, hiru zahar etxetako gestioaz arduratzen dela, (San Adrianen bat



Azienda katastroa

Aziendarik daukatenak, Abeltzantzaren Aberastasuna Kontatzeko Orria (Katastroa), Udaletxeko bulegoetan betetzera beharturik daude, azaroaren 3tik 28ra bitarte. Kontutan eduki agiri hau beharrezkoa izaten dela dirulaguntzak eskatzerako orduan. Bestalde, aurtengo lizentzi fiskala ordaintzeko epea irekia dute herriko 210 langile autonomo edo enpresak. Hilaren 30a bitarte 10,4 milioi ordaindu beharko dituzte, denen artean.

eta Donostian bi, dene-tara 300 lagun) eta beraien praktikan oinarriturik egin dutela ikerketa. Hau idazteko garaian Udala eta aipatutako enpresako ordezkariak biltzekoak zirenez ez digute behin-betiko baloraziorik eman nahi izan, oraingoz.

Gasa sartzea 12 milioi gosta da

Alde Zaharreko gas-sareak gaingitu ditu Industria Departamentuko teknikoek egindako segurtasun frogak, Udalak adierazi duenez. Ondorioz, tubrietan badago gasa, beraz, norberaren esku gelditzen da hemendik aurrera

instalakuntza partikularrak eta Repsol enpresarekin kontratuak egitea. Alde zaharreko etxe guztietara gasa sartzea 12,2 milioi kosta da baina horietatik 6,7 berreskuratu dira dirulaguntza eta kontribuzio bereziekin.

flash

Kultur
Taldearen zinea
Datorren larunbatean, arratsaldeko 8etan, Kultur Taldeak bi pelikula eskainiko dizkigu zinemari. Bata Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearena da eta erakunde honi buruzko informazioa emanen digu. Bestea berriz, herriko gazte talde batek egin da. «Rodrigo Luzeantxa» du izenburua.

Leitzalarreko bordak

eta orohar herri lurretan daudenak saltzeko arauak onartu zituen udalak. Bordak saltzea onartuko da, erostuna kanpotarra bada ere, baina baldintza hauek bete beharko dira: erosten den bakarra erakuntza dela aitortu beharko dute eta transakzioa egiteko alkatearen baimena beharko dute.

Euskara teknikari

baten lanpostua betetzeko deialdia argitaratu du Aldizkari Ofizialean Euskara Mankomunitateak. Horrela, izena emateko epea abenduaren 12an, eguerdiko 1etan bukatuko da.


Basa Kabi
Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

Elizatz
ERLOJUTEGI
BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

FUNERARIA ZERBITZUAK


DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

BAZTAN

Ehun bikote baino gehiago parte hartzen ari da mus txapelketan

Finala abenduaren 27an jokatu da Oronozko elkartean

JOSEBA IGARABIDE

Baztandarren Biltzarreko mus txapelketa martxan da eta erreklis- ta ikaragarria izan due- la erran behar da, ehun bikote baino gehiagok eman baitu izena. Herriz herri jokatu ondotik, abenduaren 20an kuar- teletako finalak jokatu- ko dira: Baztangoizakoa Azpilkuetan, Elizon- dokoa Lekarozen, Erbereakoa Gartzainen eta Basaburuakoa Almandozen.

Final nagusia aben- duaren 27an Oronoz- Mugairiko elkartean bu- rutuko da. Ondotik, afa- ria izena ematen duten guziendako. Sariet da- gokienez, Baztango produktuez osatutako



zarea (txapeldunenda- ko) eta lotea (bigarre- narendako) izanen dira.

Kuarteleko irabazle- entzat, berriz, afariak emanen dira.

Urrezko Ezteiak

50 esposaturik bete zituzten urriaren 11n sortzez lekaroz- tarrak eta egun Elizondon bi- zi diren Roman Mihura Ezkurra eta Juana Sanberro Galarregik. Umore ederrean bete ere, Romanen bertsoak leitu bertzela:

*Berrogeita hamar urte andriaren ondun
zer gauza ederra den pastia munduan
beti bizi izan gara ahal dugun moduan
hiltzen garelaik Jainkuak hartuko al gaitu zeruan.
Zahartzen ari gara poliki poliki
urteak uste gabian joaki
inoiz ez gara izan orain baino hobeki
Españiako Gobernuak emanta jorñala izaki.
Gainbera begira nago nere mutiko ttikiari
tripa aspian kerizatu da, inondik ez da ageri
nik ez dakit zer dagon logaliak edo bertzenaz eri
erran beharko diot nere herriko medikua Mirentsuari.*

flash

San Andres Eguna

ospatuko dute aza- roaren 29an Zigako Zigaurre auzoan. Ekitaldien barne, Baztandarren Biltza- rrak antolatutako mus txapelketako he- rriko kanporaketa jo- katuko da.

San Martin Eguna

Amaiurren serorari ordaintzeko baliatu dute aurten, beti be- zala. Agian, garai ba- tean, maisterrak na- gusiari ordaintzeko eguna zela gogora- tuz.

Baztan-Bidasoa

anbulantzia enpresa- ren aldeko sinadura bilketa burutzen ari da Elizondoko Osa- sun Zentroan.

Enpresa emakumeen bilera datorren asteartean Elizondon

Nafarroako Ema- kume Enpresari eta Zuzendarien Elkar- teak antolatuta bilera bat bu- rutuko da datorren as- teartean, azaroak 25, arratseko 7,30etatik ai- tzinera Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

Batez ere, lanpos- turen bat sortu, ko- mertzio bateko jabe izan edo enpresa bate- ko gerente edo buru di-

ren emakumeei zuzen- duko zaie elkarte, be- re asmoen berri ema- teko. Bileraren helbu- ru nagusia, hain zuzen, 1995ean sortu zen el- karte hau ezagutaraz- tea da. Ia hiru urte be- te ondotik, gero eta gehiago omen dira el- kartean, emakume en- presari gehiago dau- delako eta kideei gero eta zerbitzu osatuagoa eskaintzen diotelako.

Eskualdeko ehizlariak bildu dira

Joan den larunbate- an ehizi elkartekoen bi- lera burutu zen Arizku- nenean. Ehizari bu- ruzko hamar urtetako aurreplana erakutsi zuen Enrique Castien, Ehizi eta Arrantza Departamenduko zu- zendari nagusiak.

Bertzalde, untxeen errepoblatzioa egiteko 84.042 pezetako diru- laguntza jaso du Iru- ñeatik Ehizi elkarteak.



Arraiozko eliza berria azaroaren 30ean inauguratuko dute

Igande honetan zortzi, hau da, azaroaren 30ean zabalduko dute Arraiozko eliza, moldaketak egin ondotik. Meza ondotik, bazkaria ere izanen da. Horretarako txartelak (3.200 pezetatan) Zubi- Ondoan ostatuan hartu behar dira astelehena, aza- roak 24, baino lehen.

La Asturiana
ostatu • jatetxea

Tfnoa: 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

OPS Ingenieros S.L.

• Topografi lanak: Lur neurketak, balorazioak.
• Nekazal proiektuak: Bideak, ur depositoak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

BAZTAN

Baztango dantzariak beraien eguna ospatuko dute

Asteburu honetarako Ablitasko dantzariak gonbidatu dituzte

J.I.

Urtero bezala, Baztango dantzariak beraien eguna ospatu nahi dute eta horretarako, heldu den asteburu hau aukeratu dute. Ohikoa denez, taldean ari direnak eta aritutakoak biltzeko aprobetxatuko dute. Gainera, aurten taldearen hamargarren urterrena ere ospatuko dute.

Egitarauari dagokionez, larunbat honetan, azaroaren 22an, Ablitasko dantzariak arituko dira Irurritako plazan, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Gaueko 10etan, berriz, Arizkongo elkartearen afaria izanen dute. Azaroaren 23an, igandea, bazkaria izanen dute leku berean. Berriz elkar ikusteko eta dantzari buruz solasteko aitzaki ona.

Emakumeendako autoezagupen ikastaroa burutzen ari da Elizondoko Osasun Zentroan

Emakumeentzat autoezagupen edo norberaren burua hobeki ezagutzen hasteko ikastantolatatu du Haizea Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroak Debalde. Azaroaren zehar ortziralero burutzen ari da, hau da, 7, 14, 21 eta 28an, goizeko 10eta-

tik 12etara Elizondoko Osasun Zentroan. Ikastaroaren helburuen artean, norberaren gorputza ezagutzea eta ez bakarrik profesionalen esku uztea egonen litzateke. Solasaldiak, talde eztabaidak, diapositibak... erabiltzen dituzte horretarako.



Baztan-Bidasoako Argazki Rallyan Gregorio Iribarren arizkundarra irabazle

Urriaren 19an burutu zen Oronozen Baztan Bidasoako Argazki Rallyaren edizio berri bat, herriko Gaztelune elkarteak antolatua. Partehartzaileek sei gai landu behar zituzten: postala, zubia, ura bizirik, udazkeneko kolorea, etxe tipikoa eta gai librea. 1. saria (15.000 pezeta), goitiko aldean ageri den argazkiarekin lortu zuen Gregorio Iribarren arizkundarra. Bigarren saria (10.000 pta), Ainhua Ortuoste arrasatearra eskuratu zuen, beheitiko argazkiarekin. Hirugarren saria (5.000 pta), Mendillorriko Antonio Alvarezenezat izan zen. Herriko argazkilari batek ateratako erretrato onenaren saria Blanca Bertizentzat izan zen. Epaimahaia, Felix Mena argazkilariak eta Gaztelune elkarteak bi kidek osatu zuten.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**Berokiak, abrigoak,
puntuzko jertseak...**
**Gabardinak eta
Neguko Telak**

ZUGARRAMURDI

Akelarre elkarteak bere kontuen berri eman du etxez etxe

Hiru milioi baino gehiago bestak antolatzen erabili zituen

MARGARI ETA KORO

Hilabete hontan banatu dira etxez etxe Akelarre elkarteak kontuak. Kontu hauetan gaupasan biltzen den dirua ongi baliatzen dela ageri da: diru-kopuru haundiena bestetan gas-tatu da, 3.150.000 pe-zeta (nahiz eta besteta-ko gastua orotara gan den urtean baino milioi bat gutiago izan, 6.800.000 pezetakoa); gero 617.000 pezeta ikastaro eta bertze kul-tura ekintzetan gan di-ra; azkenik 125.000 pe-zeta TTIPI-TTAPA lagun-tzeko bidali ziren.

Gai hunekin lotuta erran behar da Herriko Etxeak onartu duela udal-eremu zati bat el-karteari ematea (frontoi ondoan dagoen eremu bat) bilerak egiteko eta biltegi gisan erabiltze-ko lokal bat egiteko.



1990. urtean 88 haur ziren eskolan, orain erdia bertzerik ez

Errepidea zabaldu eta hobetuko da

Dantxarineatik Zugarramurdira sartze-ko errepidea zabaltze-ko eta hobetzeko lanen proiektua Ingenieria Idom Internacional en-presak idatziko du, 7.280.000 pezetatan. Adjudikazioa, urriaren 22an egin zuen Nafa-rrako Gobernuak He-rrilan Departamenduko Zuzendari Nagusiak. Orain proiektua idaztea eta lehenbailehen lane-an hastea—eta bukatzea, noski—bertzerik ez da gelditzen.

Eskolako Guraso Elkarteak Batzordea berritu da

Urdazubi eta Zugarramurdiko Eskoletako Guraso Elkarteak Batzordea berritu ondoren, hauek dira ikasturte honetan gelditu di-renak: Cristina Indaburu, Lur-des Karrikaburu, Ana Mari Age-

rralde eta Arantxa Mendiburu. Nahiz eta eskolak bi herrietako haurrak biltzen dituen, halere denetara ez dago 49 haur baizik (34 famili); hau dugu betiko errenkura, 1990. urtean 88 haur

ziren, aurtan berriz ia-ia erdira jautsi da kopurua... eta espe-rantza gutirekin gainera: aurtan Zugarramurdin sei biztanle hil zaizkigu eta haur bakarrik ere sortu. Kontuak errexak dira.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
23.000 irakurle

Okindegia

Jatetxea

Uxo

Polig. Ind. Ordeki Tfno.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

Okindegian

- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enhargatuz gero,
bildotsa ogi-labeaz errea.
Goxxo-goxxo!*

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBART
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Harrobiko arrabotsen eztitze asmoak milioi bat liberako gastua ukanen du

Erdia Europako Kutxak (Interreg) ordainduko luke

MIXEL ETA JACQUELINE

Herriak harrobiko arrabotsaren eztitzeko eta menperatzeko lanak egiteko xedea du. Lezeen ondo-ondoan izanki eta, oso kaltegarria dela dirudi. Gastuak 671.500 liberetara helduko lirarteke. Ekainaren 7rako erabakiak hartuak baziren ere, geroztik, irailaren 5ean, bertze lan batzuek gehitu dira. Horietan barne dira mugaren inguruan dauden ibilbideen berritzea. Orotara lezealdeko obrak 1.014.400 liberetakoak izanen lirarteke eta ordainketarentzat laguntza eskaera ezberdinak eginak izan dira eta hein huntakoak lirarteke parte hartzeak: Interreg edo Europako Kutxak erdia, hau da, 507.200 libera; eskualdeak, %10, 101.440 libera; Departamenduak bertze %10 (101.440 libera) eta Herriak, azkenik, %30, 304.320 libera.

Batzar bera kari, onartua izan da Xantakoenea eskualdean ar-



Harrobiko arrabotsaren eztitzeko lanak ordaintzeko 304.320 libera ordaindu beharko ditu herriak, hau da ehunetik hogoita hamar Artxiboa

gindarraren bideratzeko 235.496 liberen gastua egitea, aldi huntan herriak 35.139 liberen emaitza bere gain hartuko duelarik.

Aipatu ditugun obra egitasmo hauek noiz gauzatuko diren ez dakigu batere, eta are gutiago hasieran hitz emanak diren dirulaguntzak zinez eskuratuak izanen diren. Ondoko hilabete horietan harat hunatak agertuko dira, segur.

Uso sasoin hitsa izan da aurtengoa

Aurtengo uso sasoina ez da haundienetarik izan guziz herriko sarelarientzat. Iparraldeko ihiztariek diotenez usoak gero eta gehiago itsasaldetik iragaiten dira, mendia bazter utzirik eta gure herrietako postetan parada guti izan da usozaleentzat.

Horiek hola guti balira, bertzerik ere jakin

dugu: iragan azaroaren 2tik 3rako gauean ohoiak Usategietako etxolan sartu dira eta zortzi zizpa segurik ebatsi dituzte, bertze gauza askorekin batean.

Erran gabe doa ihiztariak haserre zirela eta ulergarri da, gertakari salagarri bezain peningarria baita gure iduriko. Baina zer egin?

Parropia artzainik gabe

Mixel Idiart herriko apezak urriaren erdituaz geroztik osasun arazo batzuk badauzka eta Hendaiaiko atsegin etxe batetara joan behar izan du. Hemendik laster bizkortzea desiratzten diogu, herritar guzientz izenean.

Kultur Hilabetea

Egitaraua xeheki, ale huntako Kultura sailean duzue, 27 orrialdean. Sarako ekitaldiei dagokienez, abenduaren 6an, larunbata, Eztanda trikitixa taldeak kontzertua eskainiko du Herriko Etxeko Edantegian, arratseko 10,30etan. Abenduaren 12an, ortzirala, arratseko 9etan, «Langileen kooperatiba mugimendua» mintzaldia eskainiko du Xabi Larralde Ekonomia ikasleak. Abenduaren 21ean, azkenik, Bordaxuri antzerki taldeak «Bordaxuri», Piarres Larzabalen sorkuntza eskainiko du, 4etan.

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK

GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea


TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

© 58 02 78



• Hileta artea



KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

EZKONTZAK

Francisco Jose Sarratea Arregi eta Michelle Antoinette Caporige, Doneztebe eta Tampakoa (Florida, EEBB), urriaren 25ean.

JAIOTZAK

Andoni Eizagirre Zubieta, Irungoa, urriaren 27an.
Ander Iraola Otxandorena, Berroetako, urriaren 22an.
Ander Ramos Iraola, Berroetako, urriaren 21ean.
Aitziber Goienetxe Batiz, Lesakakoa, urriaren 25ean.
Xuban Larretxea Alzugarai, Lesakakoa, urriaren 28an.
Bixen Telletxea Eguzkiagirre, Lesakakoa, azaroaren 1ean.
Naroa Elizalde Etxekolonea, Zubieta, urriaren 31n.
Sara Almandoz Lukanbio, Arantzakoa, azaroaren 7an.
Jon Aranbillet Galzagorri, Sunbillakoa, azaroaren 4an.

HERIOTZAK

Antoinette Etxebeste Mitxelena, Sarakoa, urriaren 26an, 68 urte.
Juan Angel Perotxena Larragain, Elizondokoa, urriaren 21ean, 42 urte.
Juan Miguel Elizetxe Arraztoa, Garzaingoa, azaroaren 5ean, 88 urte.
Jose M^a Ariztimuño Goikoetxea, Leitzakoa, urriaren 25ean, 76 urte.
Jose M^a Lekuona Mitxelena, Lesakakoa, azaroaren 6an, 88 urte.
Jose Luis Irigoien Arandia, Berakoa, azaroaren 6an, 60 urte.
Jose Antonio Igoa Pagola, Berakoa, azaroaren 8an, 63 urte.
Benjamin Sarobe Aldabe, Arantzakoa, azaroaren 8an, 77 urte.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitetarako produktuez betea, emango dizugu.

Ez ahanzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA



Lanerako eta denbora librerako

SAMPI ARAGON



Leitzako errepidea
☎ 450354 / 450759
DONEZTEBE

Abendu kulturala ospatuko dute, Sara, Bera, Azkaine, Senpere eta Etxalarren

Aurtengoan "Herriak eta Hiriak" gaia hartu dute gisa guzietako ekitaldiak antolatzeko abiapuntutzat

1986an sortu zen orain abendu-ko kultur hilabetea bihurtu denaren hazia, urte hartan Urruñako Hazia elkarteak Kultur Asteak burutu zituenen. Orduztik honat, gauza dexente aldatu da: herri gehiagotarat hedatu da ekimena, egitaraua aberastu egin da urtetik urterat, eta aste kulturala izatetik hilabete osoa izatera pasa da.

Horrela, 11 urte beranduago, Azkaingo 'Altza Lili', Sarako 'Gaztetxea', Senpereko 'Oxtikenekoak' eta Berako 'Gure Txokoa' elkarteak aritu dira hilabete kulturalaren antolaketan, eta Zugarramurdiko 'Akelarre'k bere tokia utzi dio Etxalarko 'Altzata'ri. 5 herrietako 5 kultur elkar- te elkarlanean, beraz.

Iaz "Atxuriatik Larrunerat" zena "Herriak eta Hiriak" izenarekin bataiatu dute aurtengoa, eta egitarau zabala aurkeztu ziguten joan den astelehenean Saran emandako prentsurrekoan, kontzertuak, mintzaldiak, otorduak eta bertze, ahalik eta publiko anitzen aukera izan dezan hilabete kulturean par-

te hartzeko.

Ekitaldi sorta zabala

Azaroaren 28an (datorren ortzirala) abiatuko zaigu ekitaldi zerrenda, Jokin Apatategi soziologoaren mintzaldi batekin, "Euskal Herri eta Hiri-en garapena" gaiari buruzkoa, hain xuxen.

Gainontzeko ekitaldi guzietan ere badute, gehiago edo gutxiago, herrien eta hirien artean gertatzen den harreman jokoarekin nolabaiteko lotura, eta Beran astebetetz ikusgai izanen den edergailu edo koadro erakusketan, adibidez, gai hori izanen da ardatz nagusia.

Bertze zenbait ekitaldi aipatzekotan, antzerki saioak eta kontzertuak azpimarratzekoak dira, hoi- en artean Anari bakarlariak abenduaren 27an Etxalarren eskainiko duena, bereziki.



BERTIZ Partzuergo Turistikoa Zuzendari-Gerentea kontratatzea

BALDINTZAK:

- Erdi edo Goi-mailako Titulazioak: Ekonomi, eta Enpresa Zientzietan, Turismoan edo Zuzenbidean.
- Euskara
- Gidatzeko karneta eta kotxea
- Titulazioa azken lau urteotan lortua.

Curriculum Vitae-ak aurkezteko azken eguna: Azaroaren 28a, ortzeguna

Non: Doneztebeko INEM bulegoan

Informazioa: 59 23 23 (Bertizko Partzuergo Turistikoa) eta 45 03 09 (INEM Doneztebe).



BERTIZ Partzuergo Turistikoa

**Bertizko Landa-Turismo
Zentruko Artisautza denda
errentan emateko deialdia**

INFORMAZIOA:

592323

(Bertizko Partzuergo Turistikoa)

ESKAERAK AURKEZTEKO

AZKEN EGUNA:

Abenduaren 15a, 14,00etan

Laburnak

❖ "Hire ezinegonak antolatu"

Iemaren inguruan antolatutako ekitaldi zerrenda akitzeko kontzertua pres-tatu zuten Baztango Gazte Asanblada-koek. Hasiera batean larunbat honetan egitekoa bazen ere, azken orduko alda-ketengatik astebete gibelu behar izan dute kontzertua, eta Piperrak taldearen ordeztu, Larrua Truk-ek joko du.

DATUAK.....

1 Jon Bru txirrindularia afizionatua, orain 20 urte jaio zen Beran.

2 Gure Txokoan hasi zen bizikleta gainean, 9 urte zituela. Gero Urtxintxa taldean aritu zen eta orain bi urte, Caja Rural taldeak fitxatu zuen afizionatutan.

3 Aurten Lehendakari Txapelketa irabazi du. Sari hau lortu duen lehen txirrindulari nafarra izan da.

4 Injineritza Agronomo ikasketak burutzen ari da Iruñean eta Larrabide erresidentzian egoten da astean zehar.

5 Txirrindulan baino lehenago judoan aritzen zen eta gerriko urdina izatera ailegatu zen.

TESTUA:
 AITOR AROZENA

Jon BRU Berako txirrindularia

"Lehendakari txapelketa irabazteak erregularra naizela erran nahi du"

23 urtez beheitiko txirrindulari afizionatuek, Hego Euskal Herriko probetan lortutako emaitzen erregularitasuna saritzen du Lehendakari txapelketak eta aurten Jon Bru, Caja Rural taldean ari den beratarrak eskuratu du sari preziatu hori. Bi aldiz garaile suertatu da helmugan, behin bigarrena izan zen, bitan hirugarrena, behin laugarrena, bitan seigarrena... Halere, umiltasuna ez du galdu Bruk. «Egia erran, ez naiz nabarmentzen den txirrindularia: zelaian ez naiz batere ibiltzen, mendian taldean mantentzeko haina egiten dut, maldan beheiti beldur pixko bat pasatzen dut, aurten hobetu banaiz ere eta, akaso, esprintean dexente xamar nabil».

Afizionatutan darmaizkin bi urtetan, lasaitasunez prestatzen ari dela dio beratarrak. Aurten itzuli haundi bakarrean parte hartu du, Kantabriako Itzulian, eta taldekide baten garaipenean lagundu zuen. «Gainera lau taldekide sailkapen orokorrean hamar lehenbizikoetan sartu genituen».

«PROFESIONALETARA PASATZEA ZAILA DAGO»

Datorren urtean, aldiz, Bidasoako Itzulian eta bertze zenbait itzu-



«Profesionalerara pasatzea hagitiz zaila da, talde gutti daudelako»

li garrantzitsutan parte hartzea espero du. Profesionalerako pausori dagokionez, hagitiz zaila ikusten du Jon Bruk. «Pelotoi profesionalen talde gutti dago eta ez da batere errexa, ez. Hemen Euskadi taldea daukagu eta hori laguntza haundia da. Aurten bost-sei txirin-

dulari hartu dituzte, baina gainerako taldeetan zaila da». Horretarako entrenatzen segitzen du, ordea. Hilabete batez deus egin gabe egon bada ere, orain gimnasioan eta bizikleta gainean, aurrendenboraldia lantzen hasi da, «patinetan ere ibiltzen naiz, bertze gauza batzuk bi-latzearren». Bere idoloa Marco Pantani da, «dena ematen duelako, hagitiz agresiboa da».

Azken asteotan Nafarroako txirrindulari-tzaren mundua astindu

duen deklarazioak egin zituen Iñaki Goia, Berako bertze txirrindulari batek. Berak zioenez, afizionatu mailan dopina, hau da, legezkoak ez diren sustantziak hartzea fenomeno orokorra da. Jon Bruk hau ez dela egia dio. «Nik ez dut inoiz hartu horrelako produkturik eta jende gehienak ez du hartzen. Berak erran zidanez, bere kasu pertsonala kontatu nahi zuen eta egunkarian hori orokorrean gertatzen dela agertu zen». ■

Aresok eskuratu zuen lehendabiziko txapela Nafarroako sokatira txapelketan

■ 680 kilotan, Lesakako Beti Gazte eta Txantreari irabazi zien

■ 640 kiloko txapelketa burutzen ari da orain

Azaroaren 2an hasi zen aurtengo Nafarroako sokatira txapelketa, Arraiozen jokatu zen 680 kiloko txapelketaren saio bakarrekin. Hiru talde aurkeztu ziren txapelketa honetan, Beti Gazte, Txantrea eta Areso. Lehenengo tiraldia lesakarren eta Txantreakoen artean izan zen. Biak Beti Gazte irabazi zituen (1'28" eta 2'15" iraun zuten). Bigarren tiraldian erabaki zen txapela, Aresok bietan irabazi baitzion Beti Gazteri, lehendabizikoan 2'08" erabiliz eta bigarrenean, ikusgarria, 3'27". Azkenik, Areso aisa nagusitu zitzaion Txantreari, 1'19" eta 0'58"tan, honenbertzez aurtengo lehen txapela bururatu. Txapela lortu zuten tiralariek Boni Etxetxia, Patxi Baraibar, Mikel Sukuntza, Mikel Arraigo, Javier Otermin, Juan Mari Izeta, Txomin Artola eta Joxe Otermin izan ziren.

Arraiozko saioan, Sakana eta Berrioizarko neskek exhibizioa egin zuten. Aurten ez dira bi talde hauek bertzerik aurkeztu, beraz ez da

txapelketa jokatzetik izanen. Halere zenbait erakustaldi eskainiko dituzte. Jubenil mailan ere ez du talde bakar batek izenik eman, beraz ez da jokatu txapelketa-rik.

640 KILOKOA JOKOAN


Pisu haundiko txapelketa burutu ondotik, orain 640 kilokoa jokatzen ari da, oraingoa ligaxka moduan. 680 kilotan parte hartu duten taldeekin batera Ultzama arituko da pisu honetan. Lehen saioa asteburu honetan egin dute. Hurrengoak azaroaren 22 edo 23an Berrioizarren eta 29-30ean Iruñean jokatu dira. Gero 600 kilotik beheretiko txapelketa etorriko da. Hau ere, ligaxka moduan izanen da, Areso, Beti Gazte, Txantrea, Imotz eta Ultzamako taldeen partehartzearekin. Saioak abenduaren 3 (Laraintzar), 8 eta 14an (Orkoien) jokatu dira. Azkenik, 560 kiloko txapela saio bakarrean jokatu dute Beti Gazte, Areso, Txantrea eta Imotzek Etxarri Aranatzan, abenduaren 20 edo 21ean.

Jexux ETXEZARRETA Aresoko entrenatzailea

"Udalak ez dio pezeta bat ere ematen Aresoko taldeari"

Dagoeneko lehen txapela eskuratu badute ere, Jexux Etxezarretak Euskal Herriko txapelketarako prestatzeko modua ikusten du Nafarroakoa. «Guretzat behintzat bai, eta Beti Gazterentzat ere horrela izango dela uste dut. Hala ere Nafarroako txapelketak badi bere garrantzia eta guk ahaileginatekin ditugu». Euskal Herriko otsailean izanen dela kontuan hartuz, bere ustez goiz xamar da gogor prestatzeko. «Entrenamendu serioak egiteko oraindik goizegi da, baina ongi etorriko zaigu pixkanaka gure maila hartzeko».

Aurten, Nafarroako zenbait txapelketa antolatze arazoak izan dira, talde gutxi eman baitute izena. Aresoko entrenatzailearen ustez, «hasieran taldeak lagun koadrila bezala sortzen dira, baina pix-



«Nafarroakoa aprobetxatuz gutxienez iazko maila eman nahi dugu Euskal Herriko txapelketan»

kanaka-pixkanaka konturatzen dira maila hobetu egin behar dela aurrera jarraitzeko, lan gehiago eta entrenamendu serioagoak eginez, eta jendeak ez du horrelako sakrifizioerik

egin nahi». Diru kontuei dagokienez, herriko elkarte batetik eta Leitzako Udaletik jasotzen dute. «Gezurra badirudi ere, Aresoko udalak ez du pezeta bat ere ematen».

Lau terdiaren barneko bi pilota txapelketak azken txanpan sartuak dira



Lau terdiaren barneko pilota txapelketak —Asegarcek antolatutakoa eta ofiziala— finalera begira jarri dira. Eskualdeko bi ordezkari ditugu txapelketaren finalerdietan. Ofizialean, Juanjo Urrutia saldiastarra ederki ari da. Final laurdene-

tan 22-15 irabazi zion Ansoategiri eta finalerdian Goñi Iren kontra aritzekoa zen asteburu honetan. Finala, igande honetan, azaroaren 23an, jokatu da Oñatin.

Asegarcek antolatutako txapelketan, berriz, lau onenen artean sartu da Julian Retegi. Ez hori bakarrik, ligaxkako le-

hen partiduan 22-15 irabazi zion Arretxeri, gaur egungo txapeldunari, erakustaldi eder baten ondotik. Arretxeren kolpe haundiagoa teknika bikainarekin gainditu zuen Retegi II.k. Titin eta Nagorek ere nahi-ko lan izanen dute eratsundarri aurre egiteko. Finala, azaroaren 30ean jokatu da.



Urrutia finalerdian sartu da

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

LESKA

► Azaroaren 20an

Xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

ZINEA

LEITZA

► Asteburu honetan

"Michael Collins" eta "Oliver y su pandilla" pelikulak izanen dira ikusgai Leitzako zinema aretoan.

► Datorren astean

berriz, "Secretos del Corazón" sonatua eta "El mundo perdido" filmak botako dituzte.

KONTZERTUAK

LESKA

► Gaur, azaroak 20,

ferietako egitarauaren barnean Alaitz eta Maiderrek joko dute plaza zaharrean, arratsaldeko 7,30etan. klaia tailerra.

ELIZONDO

► Azaroak 29an

eginen da, azkenik, "Hire ezinegona antolat" kontzertua, antolatzaileek astebete gibelteza erabaki ondotik. Larrua Truk, PiLT eta Skalariak taldeek joko dute Abastos estalpean.

BERTSOAK

LESKA

► Azaroaren 29an

Xalto Sariaren kanporaketa bat jokatu da Arrano elkartearen, afari baten inguruan. Xalto sarian eskualdeko bertsolari gazte aunitzek parte hartzen dute.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 5.700 pta.
- Zerri gizena (95-100): 194 pta./kilo
- Zerramak: 105-115 pta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
 - Idixkoak: Pta./kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 540 |
| 1.koa | 520 |
| 2.koa | 500 |

• Urruxak: Pta./kg. Kanal

Extra	560
1.koa	540
2.koa	510

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):


Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 26.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 38.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 380 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Lesakako feriak

Azkeneko bi aleetan Elizondo eta Doneztebeko ferien gomendioa egin bagenuen, ezin Lesakakoak bazterrean utzi, urteko azkeneko feriak dira-eta.

Atzo—asteazkena—hasi ziren feriekin lotutako lehenbiziko ekitaldiak, eta ongi hasi gainera, Beti Gaztek antolatzen duen Ajoarriero Lehiaketaren 7. edizioarekin, eta ondoren plaza-ko dantzaldiarekin.

Gaur, ordea, aziendaren eguna izanen da, urtetik urterat tratuan aritzeko ohi-tura galduz joaki bada ere, ikusgarriak izaten baita, plaza inguruan paratzen dituzten aretxe, behi, behor eta ardi saila. Azken urteotan ehizi-zakur eta pot-tokaren bat edo berteze ere ikusi dugu.

Horiek plaza aldeko kontuak, baino feriak badi-tu berteze ikuskizunak ere. Goizean Donato Larretxea eta Mikel Mingegiaren arteko lehia (11,30etan plazan) eta bertsolarien saioa, eta arratsaldean berri, pilota partiduko jokatu dira frontoian, edo nahiago due-narentzat artisau lanen erakusketa izanen da plazan. Arrats aldera Alaitz eta Maider trikitixa talde famatuak joko du.

LIBURUAK



«Bravo anaien altxorra»

Ignacio Martínez de Pisón

ELKAR

Espainia aldeko lautadetan, olibondo artean garatzen da eskuarte-dugun kontakizuna. Ahanzturak konkistatu duen errepide bazterreko ostatuko hiru anaiak eta gasolindegiko neskatoa ditugu protagonisten artean, baina benetako zirrararen duena Alfa Romeo deskapotablearen etorrera da, gidari beltzaranak betiketatsun aspergarria hautsi eta misterio eta abenturaren ateak zabaltzen ditue-

larik, bereziki.

Aldiberean mutiko izateari uzten dion gaztearen bizipenak amodioaren lehen sintomekin lotuak ageri dira idazle zaragozarraren eleberri honetan. Irakurle gazteei begira idatzi du Ignacio Martínez de Pisón, baina irakurle fin guztiek nabaritu dute haren idazkeraren arintasun landua, eta bere lumaren trebezia eta aparteko gaitasuna.

Auto aseguruak

Auto aseguruaz mintzatzen garelarik ezberdindu behar dugu legeak agintzen duen derrigorrezko aseguru eta aseguru-etxeek aukeran eskaintzen dizkiguten artean.

Lehenak bertzei eragindako kalte material eta pertsonalen aurrean babesten gaitu, baino ez mugarik gabe, 16 milioitik goitiko kalte materialak eta 56tik goitiko kalte pertsonalak ez baititu bere gain hartzen.

Beraz, eta derrigorrezko aseguru aski ez denez mugagabeko erantzun zibila kontratatu beharrean gaudela, bertzei sortu ahal dizkiegun kalte guzietan ardura dadin. Hauek dira, gure ustez, nahi eta nahi ez kontratatu behar ditugun koberturak, kontutan hartuta, beti ere, aseguru etxeen arteko ezberdintasun haundiak egon daitezkeela.

Hiru aseguru errentagarri

Jakina da aseguru etxeek berriz garantia zenbait ere eskaintzen digutela; **babes juridikoa, bidaietarako laguntza eta "a todo**



Autoen ezaugarriek aseguruaren prezioan eragin zuzena dute.

riesgo" delakoak izan ezik, arras garesti eta erabilpen eskasekoak denak ere, gure esperientziak erakutsi digunez.

Babes juridikoa deritzon aseguru da denetan interesgarriena, istripua suertatu ezker indeminazioa es-

«Babes juridikoa, bidaietarako laguntza eta "a todo riesgo" delakoak izan ezik, arras garesti eta erabilpen eskasekoak dira aseguruak».

katu eta gure defentsa juridikoaz arduratzen baita aseguru etxea.

Bertzetik bidaietarako laguntza aseguru dugu, gure mugetatik kanpo maiz ateratzen direnendako gomendagarria, ez beharren bat gertatu eta berehala autoarendako eta lagunendako laguntza segurtatzen baitigu. Gainera autoa eta bidaiariak etxera ekartzearen gastuak bere gain hartzen ditu aseguruak.

Azkenik, gazteleraz *"a todo riesgo"* deitzen dugun horrek, gure autoari nahiz bertzei eragindako kalteak aseguratzeko ditu, baina *"sinistro total"* kasuan konpainia guztiek ez dute berdin jokatzeko aipatu behar da.

AGENDA EGUNEZ EGUN

UDAZKEN KULTURALA LESAKA

► Azaroaren 22an arratsaldeko 4tan haurrentzako musika tailerra izanen da.

► Azaroaren 29an arratsaldeko 4tan haurrentzako natura tailerra izanen da.

► Abenduaren 2an arratsaldeko 7,30etan "Euskarra, Nafarroa eta nazionalismoa" gaiatzar lastuko dira Patxi Larretxea eta Fernando Mikelarena historialariak.

MENDI IRTEERAK ELIZONDO

► Azaroaren 23an Urritzate-Aritzakun ibilbidea burutuko dute Baztango Mendigoizaleek.

► Azaroaren 30ean berriz, Abartanera goituko dira, Mugairetik aterita.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

► Azaroaren 17rik 23ra

Lesaka, NARBART, Lezaun, Urdazubi eta Goizueta.

► Azaroaren 24tik 30era

Bera, Doneztebe, Iturralde eta Goizueta.

► Abenduaren 1etik 7ra

Etxalar, Sunbilla, Lezaun, Leitza, Goizueta.

DISKAK



«Ikastola berria»

Esan Ozenki

Oraingoan Xubero alderat mugitu da Esan Ozenki disketxea, Sohutaraino hain zuzen ere, eta hango ikastolako haurrekin batera grabatutako kantu sorta hau igorri digute handik. Abesti herrikoien moldaketetan trebatu dira zenbait talde, PiLT-ek "Aldapeko", Marrumak "Paristik datorren"... eta berriz batzuek elkarlanak egiteko probexu dute, Alaitz eta

Maiderekin Deabruak Teilatuetan-ekoekin kantatzen duten "Kantari goaz" hori kasu. Abesti guzietan helburua bakarra da, Sohutako ikastola erai-ki berria sustatzea, eta disko honen baitan atxemanen ditugu Fermin Muguruza -piratei buruzko kantu batekin- eta Andoni Delirium Tremens ohia- ren bakarkako saiakerak, besteak beste.



Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago badituzue pasatu gure bulegotik.

Sail hau debaldekoa da.
Norbait zoriendu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA



Nerea Urkizu
Albisturrek 10 urte beteko ditu azaroaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat Goizuetako familiaren partez.



Amaia Jaurena
Etulain arizkundarrak 5 urte bete azaroaren 16an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Angel Mendi-berri arizkundarrak azaroaren 7an urteak bete ditu. Zorionak eta muxu bat Berako Leire ilobaren partez.



Juli Mendib-erri arizkundarrak urteak beteko ditu azaroaren 27an. Zorionak eta muxu bat Berako Leire ilobaren partez.



Miren Itxaso
Arretxea Bidegain narbarteak 8 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak familia guziaren partez.



Zorionak Narbarte **Maite V.ri**, azaroaren 3an urteak bete zituelako. Mugaire eta Narbarte lagun partez.



Nuria San Miguel elgorriagarrak azaroaren 26an beteko ditu 2 urte. Zorionak aita, ama eta Oskarren partez.



Elko (USA) **Michèle Igoak** 3 urte beteko ditu abenduaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren partez.



Maiteux Goia
Irazoki beratarak 10 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Zorionak familiaren partez.



Andoni Taberna igantziarrak 5 urte bete ditu azaroaren 17an. Zorionak familia guziaren partez. Muxu haundi bat.



M Carmen Mendizabal
Taberna lesakarrak 22 urte bete ditu azaroaren 3an. Zorionak familia guziaren partez.



Maite Legasa
Taberna igantziarrak urte bat bete du azaroaren 10ean. Zorionak familia guziaren partez. Muxu haundi bat.



Victoriano Goia
Etxebeste 67 urte beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak bere arreba Pepita eta familiaren partez.



Maria Eskudero
Apezetxea goizuetarrak azaroaren 30ean 5 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez.



Javier Eskudero goizuetarrak urteak bete zituen abuztuaren 19an. Zorionak Berakoen partez.



Ramon Retegi igantziarrak urteak bete ditu azaroaren 13an. Zorionak lau Maria eta Marijaren partez.



Xabi Telletxea igantziarrak urteak bete ditu azaroaren 8an. Zorionak familiaren partez.



Javier Telletxea igantziarrak urteak beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak familiaren partez.



Garazi Retegi
Anzizar altsasuarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak gurasoak eta Izaroren partez.



Naiara Telletxea igantziarrak urteak beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak gurasoen eta Saioren partez.



Unai Alzugu-aren
Arregi etxalartarrak 2 urte bete ditu azaroaren 15ean. Zorionak eta muxu bat Gurasoak eta Maitane.



Unai Mendi-berri
Aldaz donamariarrak 12 urte bete ditu azaroaren 15ean. Zorionak Naroa eta Gurasoen partez.



Beatriz Irurueta 15 urte bete zituen urrian. Zorionak institutuko lagun partetik.



Garazi Urrea- ga
Otxoteko burlatarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak guraso eta ahizparen partez. "kapullita".



Alaitz Arrobarren
Aranburu lesakarrak 8 urte bete ditu azaroaren 7an. Zorionak familiaren partez.



Enara Arrobarren
Aranburu lesakarrak 13 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak familiaren partez.



Dorleta Peña
Santiago beratarak 9 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak familia guziaren partez.



Gorka Alzuarte almandoztarrak 5 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat Katixaren partez.



M Jose Añor- ga
Rementegi donostiarrak 31 urte beteko ditu azaroaren 21ean. Zorionak eta aunitz urtez, familiaren partez.



Iñaki Ariztegi oiztarrak 18 urte bete ditu azaroaren 15ean. Zorionak eta muxu haundi bat bere etxeko familiaren partez.



Ainhoa Fernandez
Mari- txalar lesakarrak urteak beteko ditu azaroaren 25ean. Ez zaitetz sobera yankie bihurtu. Zorionak.



Ainara Martin
Irigoien lesakarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat bere familiaren partez.



Pablo Aranzabal donostiarrak 6 urte bete ditu azaroaren 18an. Zorionak Alaitzen partetik.



Asier Salabe- rria
Taberna astigarragarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 9an. Zorionak Goizuetako familia eta gurasoak.



Alaia Alzuga- rai
Legazkue lesakarrak 7 urte beteko ditu abenduaren 1ean. Zorionak eta muxu bat Iñigo eta gurasoen partez.



Laura Erasun
Elizondo do- netzebarak 2 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat. Aita eta ama.



Xabier Osas
Danboriena beratarak azaroaren 25ean beteko ditu 10 urte. Zorionak izeba "ubas"en partetik.



Josu Irurzun
Luna gasteizarrak urtea beteko du azaroaren 22an. Zorionak.



Zorionak **Jazanton!** Zure 52. urtebetetzeagatik, azaroak 24an, Peña Baietz koadrilakoen partetik.



Iñaki Agirre
Gortari arizkundarrak azaroaren 18an 6 urte bete ditu. Zorionak Joseba eta gurasoen partetik.



Francisca Etxegoien eri zorionak, azaroaren 23an urteak betetzen dituelako. Muxu haundi bat familia guziaren partetik.



Izaro Goikoetxea goizuetarrak 12 urte bete zituen hil honen 13an. Zorionak beroenak familia guziaren partez.



Kontxi Mike- lestorena etxalartarrak urteak beteko ditu abenduaren 5ean. Zorionak Igantziako familiaren partez.



Xabier Etxar- te
Mikelesto- rena etxalartarrak 8 urte bete ditu azaroaren 19an. Zorionak Igantziako familiaren partez.



Itziar Etxarte
Mikelestorena etxalartarrak 16 urte beteko ditu abenduaren 6an. Zorionak Igantziako familiaren partez.



Aitor Alzugarai
Zubirik abenduaren 2an urtea beteko du. Zorionak aita, ama eta Iker anaiaren partez.



Anthony Etxarte
Perez Dixongoak (California) azaroaren 17an 10 urte bete ditu. Zorionak Igantziako familiaren partez.



Ahilene Urri- za
Otxoteko lesakarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Imanol Bertiz elizondarrak 9 urte beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak familiaren partez.



Oihane Goienetxe
Iparragirre etxalartarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 26an. Zorionak familia osoaren partez.



Elgorriaga. • Pisua, garaje eta ganbararekin salgai. Premiazkoa izateagatik, merke salduko dira.



Mugairi. • Pabiloi industrialak salgai. Prezioa: m²a 43.000 ptatik goiti.



Elizondo.
• Braulio Iriarten pisu erreformatua salgai.
6.000.000.

Bordak erosi nahi dira edozein tokitan. Egoerak ez du inporta.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908.77 86 53 • e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran **DONEZTEBE**



Igantzi. • Lehenbiziko pisua salgai. Berri berria. 11.000.000.



Etzalar. • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.

Etxeak egiteko lur erabilgarriak:

• Mugaire: 500 m²

Belategiak:

• Oitz: 10.000 m²

• Doneztebe: 12.000 m²



Bera. • Etxe berria salgai. 3.000 m². Suspela auzoan.



Donamaria. • Hiru solairuko etxea salgai. Baratzea eta garagea. Arras berritua.

Errentan emateko pisuak:

- Donezteben
- NARBARTEN
- Legasan



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

Orain nahi duzun aseguruia egiten ahal dizugu:

Etxe, komertzio, auto, bizitza edota jubilazio aseguruak.


ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

ORDOKI

ALTZARIATZ

Estilo ugariko
mobleak

Kalitatea prezio egokian



Hilabeteko eskaintza berezia

Pinu egurrezko armairu-zubia

(3,80 m zabal eta 2,21 m altuera)

Bi ohatze (0,90 m) eta mesanotxea



ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034

LESKA

LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAUAKIAK...



erako
1ª LUZ SPORT
irol dendan,
rrate baterako,
10eko
ESKONTUA
anen
uzu
rropetan...

TTIPI TXARTELArekin

dirua eta
gauza
gehiago ere
irabazten da



DESKONTUAK

AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ Bertiz %10

AUTO TALLERRAK

MENDIAUR MOTOR . . . Doneztebe %10 Kubiartetan
SANPI ARAGON Doneztebe %10 Kubiartetan
PEDRO GARMENDIA . . . Elizondo %20 Olio aldatzeak
DATUGELAY Elizondo %15 Bateria + amartiguadoreak
SANSINENA Elizondo %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak
LAGOSTA Irurita %100 Pre-ITV
ZALAIN MOTOR Bera %5 Errekanbiotan

AUTO-ESKOLAK

SEMPER Bera %10 Matrikulan

ARGAZKI DENDAK

GOIKO Bera %10 Errebelatze eta arg. materialak
AYLA Bera %10 makinetan izan ezik
MENA Doneztebe/Elizondo %10
ZALDUA Doneztebe/Elizondo %10

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera %10 (5.000 Patatik. aurrera)
SAIOA Doneztebe %10
J.J. PIKABEA Doneztebe %10 Galtza marka batzuetan ez
TXIRRISTA Doneztebe %10
KAMAMILA Doneztebe %10
PIKABEA BOUTIQUE Doneztebe %10
IPINGI Elizondo %10
GOGOS Elizondo %10
KATTALINGORRI Elizondo %10
FANTXIKE Elizondo %10 (5.000 Patatik. aurrera)

EDARI BANATZAILEAK

MANUEL TABERNA Bera %3

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS Lesaka %5 Elektrogailuetan %15 Antenetan
ALTZURI Lesaka %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek.
RADIO BIDASOA Bera %10 Deskontu baleak

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe %5 Kosmetikan %10 Oparietan
BEATRIZ Elizondo %10 (5.000 Patatik. aurrera)
MARIAN Lesaka %10

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK Elizondo %8
ZELA KIROLAK Bera %10
AGARA KIROLAK Bera %10 Kirol Artikuluetan
Mª LUZ SPORT Bera %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez.

LENTZERIAK

Mª CRUZ Doneztebe %10 (5.000 Ptatik. aurrera)
MAITE Elizondo %10 (5.000 Ptatik. aurrera)
DERE Lesaka %5 Kortseterian %10 Lentzerian

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS Elizondo %10 Liburu eta ikas-materialak
LEGARRA Lesaka %10 Lib. + ikas-mater. (1.000 Pta.)

MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK Doneztebe %6
LEIZA Elizondo %10 Sukalde mobletan

OPTIKAK

OSTARGI Bera %10

ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS Bera %10
GONI Elizondo %10 (2.000 Ptatik. aurrera)
B. ALMANDOZ Elizondo %10 (3.000 Ptatik. aurrera)
NEREA Doneztebe %10
OSTIZ Doneztebe %10

ZURGINAK

ZIMELDI Etzalar %5 Sukalde eta armario enpot.



eta
erako
OIKO
rgazki dendan,
%10eko
ESKONTUA
anen duzu
rrebelatze eta
rgazki
material
uzietan....

TTIPI-TTAPA FUNDazioak
saltzen dituen txartelak
erosiz, gauza aunitz lor
ditzakezu: ttipi-ttapa
lagundu, eskualdeko
dendak bizkortu eta
erosketak merkeago egin.

Informazio gehiago:

634100